



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko otsailaren 14a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa ([2. or.](#)).

D saila:
HITZARMENAK

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 1982ko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren 45.4 artikulua ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2003ko urtarrilaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa Parlamentura bidali du.

Hori dela-eta, Biltzarreko Erregelamenduko 161. artikulua eta horrekin loturikoak ezarritakoaren arabera, hora ERABAKIA:

1.- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren eztabaida eta bozketa Biltzarreko Erregelamenduko 162. artikulua ezarritakoaren arabera burutu dadin xedatzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Hitzarmen Ekonomikoa

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Nafarroaren ahalmenak

Foru eraentzaren kariaz, Nafarroak badu ahalmena bere tributu araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko. Finantza jarduera betetzeko eginkizunetan, Nafarroaren eskumenak Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoan ezagutzen zaizkionak dira.

2. artikulua. Tributu ahalmena.

1. Aurreko artikulua aipaturiko tributu ahalmenaz baliatzean, Nafarroako Foru Komunitateak honako hauek errespetatu behar ditu:

a) Hitzarmen ekonomiko honetan Nafarroako tributu araubidea eta Estatuko araubide orokorra harmonizatzeko ezartzen diren irizpideak.

b) Hitzarmen ekonomiko honetan xedatutakoaren arabera Estatuari dagozkion eskumenak.

c) Estatuak izenpeturiko nazioarteko tratatu edo itunak, bereziki zergapetze bikoitza ekiditeko sinatutakoak, bai eta zerga harmonizazioaren arloan Europako Batasunak dituen arauak; itun eta arau horien aplikazioaren ondorioz egin beharreko itzulketak bere gain hartu beharko ditu.

d) Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 1. artikulua aipatzen duen elkartasun printzipioa.

e) Batasun konstituzionalari dagozkion instituzioak, ahalmenak eta eskumenak, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Nafarroako Foru Komunitateak hitzartutako ez beste tributu batzuk ere ezarri ahalko ditu, errespetatzen baditu, betiere, aurreko 1. idatzatian ezarritako printzipioak eta hitzarmen honen 7. artikuluan jasotako harmonizazio irizpideak.

3. artikulua. Estatuaren eskumen osoak.

1. Estuari dagokio, betiere, inportazio eskubiak eta inportazioaren gaineko kargak arautu, kudeatu, likidatu, bildu, ikuskatu eta berrikustea zerga berezietan eta balio erantsiaren gaineko zergan.

2. Estatuko goi ikuskaritza salbuetsirik egonen da beti, hitzarmen ekonomiko honetan esleitzen zaizkion ahalmenetarako berme gisa.

4. artikulua. Nafarroako ogasun publikoaren ahalmenak eta eskubideak.

Foru Komunitateak bere dituen tributuak ordainarazi, kudeatu, likidatu, bildu, ikuskatu eta berrikusteko, Nafarroako ogasun publikoak Estatuko ogasun publikoak aitorturik dauzkan ahalmen eta eskubide berberak izanen ditu.

5. artikulua. Koordinazioa.

1. Estatu eta Nafarroako Foru Komunitatea elkarlanean arituko dira nor bere tributu araubidea aplikatzen eta, horretarako, beharrezkoak diren argibideak eta laguntza emanen dizkiote elkarri.

2. Estatuak beharrezkoak diren tresnak eta bideak abiaraziko ditu Nafarroako Foru Komunitateak hitzarmen ekonomiko honen aplikazioan eragina duten nazioarteko akordioetan parte har dezan.

6. artikulua. Aldaketa.

Hitzarmen ekonomiko honen edozein aldaketa hura egin eta onesteko erabilitako prozedurari lotu beharko zaio.

Prozedura hori bera bete beharko da Nafarroako tributu araubidea eta Estatuak etorkizunean ezarriko dituen tributu berriak harmonizatzeko.

I. TITULUA **Tributu harmonizazioa**

I. KAPITULUA **Arau komunak**

7. artikulua. Harmonizaziorako irizpide orokorrak

Nafarroako Foru Komunitateak, tributuen arloko araudia prestatzean, alderdi hauek hartu beharko ditu aintzat:

a) Tributuei buruzko lege orokorrera egokitzea terminologian eta kontzeptuetan, hitzarmen honetan ezarritako berezitasunak deusetan ukatu gabe.

b) Estatuan dagoenaren pareko zerga presio orokor efektiboa ezarri eta mantentzea.

c) Espainiako lurralde osoan pertsonen zirkulaziorako eta egoitza finkatzeko askatasuna eta ondasunen, kapitalen eta zerbitzuen zirkulaziorako askatasuna errespetatu eta bermatzea, diskriminaziorik eragin gabe.

d) Abeltzaintza, meatzaritza, industria, merkataritza, zerbitzu, lanbide eta arte jardueretarako, lurralde komunean dagoen sailkapen bera erabil-

tzea, Foru Komunitateak horien banaketa xeheagoa egiteko eragozpen izan gabe.

8. artikulua. Zerga helbidea eta ohiko bizilekua.

1. Hitzarmen honen ondorioetarako, Nafarroan zerga helbidea dutenak hauexek direla ulertuko da:

a) Ohiko bizilekua Nafarroan duten pertsona fisikoak.

b) Sozietatearen helbidea Nafarroan duten pertsona juridikoak, betiere helbide horretan zentralizaturik baldin badago kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza. Bestela, kudeaketa eta zuzendaritza horiek Nafarroan gauzatzen badira. Irizpide horien arabera helbidea non dagoen ezartzerik ez dagoenean, ibilgetuaren baliorik handienak kokalekua non duen, lurralde hori hartuko da helbidetzat.

c) Nortasun juridikorik ez duten enteak, haien kudeaketa eta zuzendaritza Nafarroan gauzatzen badira. Irizpide horren bidez zerga helbidea ezartzerik ez dagoenean, ibilgetuaren baliorik handienak kokalekua non duen, lurralde hori hartuko da helbidetzat.

d) Establezimendu iraunkorrak, haien kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza Nafarroan gauzatzen direnean. Irizpide horien arabera helbidea non dagoen ezartzerik ez dagoenean, ibilgetuaren baliorik handienak kokalekua non duen, lurralde hori hartuko da helbidetzat.

2. Hitzarmen honen ondorioetarako, Espainiako lurraldean bizi diren pertsonak ohiko bizilekua Nafarroako lurraldean dutela ulertuko da arau hauek bata bestearen ondotik aplikaturik:

1.a. Lurralde horretan egonez gero:

a) Zergaldiko egun gehienetan, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kasuan.

b) Aurreko urteko egun gehienetan, datatik datara kontaturik, sortzapenaren aurreko egunean amaiturik, zerga hauen kasuan: oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eta zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia.

Egonaldia zehazterakoan, aldi baterako absentsiak ere kontuan hartuko dira.

Kontrakoa dioen frogarik ezean, pertsona fisiko bat Nafarroako lurraldean dagoela ulertuko da ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

2.a. Lurralde horretan izanez gero haien interesen gune nagusia, hau da, pertsona fisikoaren

errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena eskuratzen duten lurraldea denean; ondorio horietarako ez dira kontuan hartuko kapital higigarriak eragindako etekinak eta ondare gehikuntzak.

3.a. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako deklaraturiko azken bizilekua lurralde horretan izanez gero.

3. Ohiko bizilekua Nafarroako lurraldean dutela ulertuko da, halaber, hauen kasuan:

a) Espainiako lurraldean bizi diren pertsona fisikoak, urte naturalean 183 egunetan, gehienez, egoten direnak lurralde horretan, haien enpresa edo lanbide jardueren edo haien interes ekonomikoen gune nagusiak edo baseak Nafarroan baldin badu kokalekua.

b) Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldean bizi dela pentsatzekoa denean, bere ezkontideak, legez bereizirik ez dagoenak, eta haren menpeko seme-alaba adin txikikoek Nafarroan dutelako ohiko bizilekua.

II. KAPITULUA Zuzeneko zergak

1. SEKZIOA

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

9. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraztea

1. Nafarroako Foru Komunitateari dagokio ohiko bizilekua Nafarroan duten subjektu pasiboen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainarazpena.

2. Familia unitate bateko subjektu pasibo guztiek ohiko bizilekua Nafarroako lurraldean ez badute eta baterako zerga-ordainketa aukeratzen badute, Foru Komunitateari dagokio zergaren ordainarazpena, unitate horretan likidazio oinarri handiena –kasuan kasuko araudiaren arabera kalkulatua– duen kidearen bizilekua lurralde horretan egonez gero.

10. artikulua. Lan etekinengatiko atxikipean eta konturako dirusarrerak.

1. Lan etekinen gaineko atxikipean eta konturako dirusarrerak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa diren aldetik, Foru Komunitateak exijituko ditu, bere araudiari jarraiki, ondotik aipatzen direnei dagozkienean:

a) Nafarroan egindako lanetatik edo emandako zerbitzuetatik heldu direnak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde komunean eta Nafarroakoan, bietan, egin edo ematen direnean, zerbitzuak Nafarroan ematen direla ulertuko da –kontrakoa dioen frogarik ezean– langilea atxikirik duen lantokia lurralde horretan dagoenean.

b) Foru Komunitateko, Nafarroako toki entitate-eta eta haien erakunde autonomoen funtzionarioen eta lan edo administrazio kontratua duten langileen lansariak.

c) Lana bidean egiten duten garraio enpresetako langileen etekinak, ordainketa egiten duen enpresak Nafarroan duenean zerga helbidea.

d) Pentsioak, haien eskubidea jasotzailea ez den beste pertsona batek sortutakoa denean ere, eta hartzeko pasiboak, Foru Komunitateak eta Nafarroako toki entitateek ordaindutakoak.

e) Pentsioak, hartzeko pasiboak eta prestazioak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoek, Enpleguaren Institutu Nazionalak, mutualitateek, enplegua sustatzeko funtsek, pentsio planek, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek emanikoak, bai eta enpresen eta beste entitate batzuen prestazio pasiboak ere, jasotzailearen ohiko bizilekua Nafarroan dagoenean.

f) Era guztietako entitateetan aritzen diren administrazio kontseilu-eta eginkizun horiek betetzen dituzten batzorde-eta buruek eta kideek, kargu horiek direla-eta jasotzen dituzten lansariak, ordainketa egiten duen entitateak Foru Komunitatean baizik ez badu ordaintzen sozietateen gaineko zerga.

Ordainketa egiten duen entitatea Estatuak eta Foru Komunitateak exijitu ahal duten sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboa denean, atxiki-pena bi administrazioei dagokie, lurralde bakoitzean eginiko eragiketa bolumenaren proportzioan, hitzarmen honen 21. artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Atxikipean horiek foru araudiaren edo araudi komunaren arabera exijituko dira, ordainketa egiten duen entitateari sozietateen gaineko zergaren zein araudi aplikatzekoa zaion, foru araudia edo araudi komuna, harexen arabera; irizpide hori bera aplikaturik dagokion administrazioaren organoek beteko dute ikuskatze lana. Aurrekoarekin ere, aitorpen-likidazioak aurkezteko tokiari, moduari eta epeari buruzko arauak ordainarazteko eskumena duen administrazioak ezarriko ditu.

2. Estatuako administrazioari dagozkio Estatuako funtzionarioei eta lan edo administrazio kontratua duten langileei berak ordaindutako lansari aktiboen nahiz pasiboen inguruko atxikipean, jasotzai-

lea ez den beste pertsona batez sortutako pensioak barne.

3. Aurreko lerrokadan xedatutakoaz salbuetsirik daude erakunde autonomoetako eta enpresa entitate publikoetako funtzionarioak eta langileak.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatiaren b) letran eta 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera administrazio batek zein besteak eskuratuko dituen atxikipenen zenbatekoa kontuan hartuko da diru ekarpenaren ondorioetarako.

11. artikulua. Enpresa eta lanbide jardueren etekinengatiko atxikipenak eta konturako dirusarrerak.

Foru Komunitateak exijituko ditu, bere araudia-ri jarraiki, enpresa eta lanbide jarduerekin loturiko atxikipenak eta konturako dirusarrerak, atxikipena edo konturako dirusarrera egiteko betekizuna duen pertsonak edo entitateak Nafarroako lurraldean duenean zerga helbidea.

Nolanahi ere, Estatuko administrazioak edo Foru Komunitatekoak exijituko dituzten atxikipen eta konturako dirusarrera horiek haiek ordaindutako etekinek eraginkoak direnean.

12. artikulua. Kapital higigarriaren etekinengatiko atxikipenak eta konturako dirusarrerak.

1. Kapital higigarriaren etekinengatiko atxikipenak eta konturako dirusarrerak, salbu eta artikulu honen 2. idatz-zatian aurreikusitako kasuak, Foru Komunitateak exijituko ditu, bere araudiari jarraiki, atxikipena edo konturako dirusarrera zergak Nafarroan ordaintzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek edo sozietateen gaineko zerga Nafarroan baizik ordaintzen ez duten entitateek egin denean.

Estatuak eta Foru Komunitateak exijitu ahal duten sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, atxikipena bi administrazioek eginen dute, lurralde bakoitzean eginiko eragiketa bolumenaren proportzioan, hitzarmen honen 21. artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Atxikipen horiek foru araudiaren edo araudi komunaren arabera exijituko dira, atxikipena eginen duen entitateari sozietateen gaineko zergaren zein araudi, foru araudia edo araudi komuna, aplikatzekoa zaion, harexen arabera, alegia; irizpide hori bera aplikaturik dagokion administrazioaren organoek betekote ikuskatze lana. Aitorpen-likidazioak aurkezteko tokiari, moduari eta epeari buruzko arauak, aurrekoa gorabehera, ordainarazteko eskumena duen administrazioak ezarriko ditu.

2. Halaber, Foru komunitateak eginen ditu, bere araudiarekin bat, honako etekin hauen atxikipenak eta konturako dirusarrerak:

a) Foru Komunitateak, toki entitateek eta Nafarroako lurralde eta erakunde administrazioetako gainerako enteek ordaindutakoak.

b) Banku, aurrezki-kutxa, kreditu kooperatiba eta bestelako finantza entitate edo instituzioen eragiketa pasiboen interesak eta gainontzeko kontraprestazioak, bai eta beste edozein kreditu establezimendutan eginikoak ere, etekinaren jasozailak Nafarroan duenean zerga helbidea.

c) Kapitalizazio eragiketetatik eta bizi edo baliaezintasun aseguruaren kontratuetatik heldu direnak, horien onuradunak edo, erreskatea gertatuz gero, aseguruaren hartzaileak Nafarroan duenean zerga helbidea.

d) Bizi arteko errentak eta aldi baterako beste batzuk ere, kapitalen ezarpenean arrazoibide dutenak, horien onuradunak Nafarroan duenean zerga helbidea.

e) Jabetza intelektualetik heldu diren etekinak, egilea subjektu pasiboa ez denean, bai eta, edozein kasutan, industria jabetzatik eta laguntza teknikoa ematek heldu direnak ere, horiek ordaintzen dituen pertsonak Nafarroan duenean zerga helbidea.

f) Ondasun, eskubide, negozio edo meategiak eta antzekoak errentan ematek heldu direnak, Nafarroako lurraldean daudenean.

3. Nolanahi ere, Estatuko administrazioari dagozkio bai berak bai autonomia erkidegoek, lurraldeko komuneko korporazioek eta bere lurralde eta erakunde administrazioen gainerako entek ordaindutako etekinei dagozkien atxikipenak eta konturako dirusarrerak.

13. artikulua. Konturako beste ordainketa batzuk.

1. Ondasun higiezinak errentan eta azpierre-ntan hartzetik heldu diren etekinengatiko atxikipenak eta konturako dirusarrerak Foru Komunitateak exijituko ditu, bere araudiarekin bat, atxikipena edo konturako dirusarrera egiteko beharkizuna duenak Nafarroan duenean zerga helbidea.

2. Entitateei ordaindutako zenbatekoek, errentak egozteko araubidearen arabera, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei egotzi beharrekoek, eragindako atxikipen eta konturako dirusarrerak atxikipena edo konturako dirusarrera egin behar duenak zerga helbidea zein lurraldetan duen, horko administrazioak exijituko ditu.

14. artikulua. Zenbait ondare-gehikuntzaren-gatiko atxikipenak eta konturako dirusarrerak.

1. Inbertsio kolektiboko instituzioen akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo haien dirua itzultzetik heldu diren ondare gehikuntzen inguruko atxikipenak eta konturako dirusarrerak Foru Komunitateak exijituko ditu, bere araudiarekin bat, akziodunak edo partaidetzadunak Nafarroan duenean zerga helbidea.

2. Joko, lehiaketa, zozketa edo konbinazio aleatorioetan –zenbait ondasun, produktu edo zerbitzuren eskaintza, promozio edo salmentarekin lotura izan ala ez– parte hartzearen ondorioz emandako sariei dagozkien atxikipenak eta konturako dirusarrerak Foru Komunitateak exijituko ditu, bere araudiarekin bat, horien ordaintzaileak Nafarroan duenean zerga helbidea. Nolanahi ere, Estatuko administrazioak edo Foru Komunitateak exijituko dituzte haiek ordaindutako sariak baldin badira.

15. artikulua. Ordainketa zatikatuak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuak zerga horren ordainarazpenerako eskumena duen administrazioak exijituko ditu, bere araudiarekin bat, hitzarmen honen 9. artikuluko araei jarraiki.

16. artikulua. Konturako ordainketen eragin-kortasuna. Bi administrazioei dagozkien atxikipenak eta konturako dirusarrerak.

1. Jasotzailearen errentaren gaineko zergaren likidazioaren ondorioetarako, jasotzailearen alde-tik baliodunak izanen dira lurralde batean zein bestean eginiko konturako ordainketak, baina horrek ez du ekarriko, ordainketa eskuduna ez den administrazioari eginez gero, beste administrazioak uko egitea eskubidez jaso beharreko diru kopurua hartzeari, eta eskatu ahalko dio okerreko ordainketa egin den administrazioari.

2. Hitzarmen honen 10, 12, 25 eta 30. artikuluetan ezarritakoaren kariaz, atxikipenak eta konturako dirusarrerak bi administrazioei dagozkienean eragiketa bolumena dela-eta, sozietateen gaineko zergan eginiko azken aitorten-likidazioan zehazturiko proportzioa aplikatuko da, eta ez da amaierako erregularizaziorik egin beharko.

Aurreko lerrokadan ezarritakoarekin ere, jardueraren lehendabiziko ekitaldian, bi administrazioen artean egin beharreko banaketarako kon-tuan hartuko dira lurralde bakoitzean aurreikusirik dauden eragiketak, deusetan ukatu gabe amaierako erregularizazioa.

2. SEKZIOA Ondarearen gaino zerga

17. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraztea.

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainarazpenerako eskumena duen kasu berdinetan dagokio Foru Komunitateari ondarearen gaineko zergaren ordainarazpena, ondasunen kokalekua edo eskubideez baliatzeko tokia edozein delarik ere.

2. Zerga ordaintzeko betebeharrak errealak duten subjektu pasiboen kasuan, Foru Komunitateak zerga ordainarazteko eskumena izanen du ondasun eta eskubideen balio handiena Nafarroako lurraldean kokaturik daudenei edo lurralde horretan baliatu edo bete behar direnei dagokienean.

Nafarroan bizi gabe, azken bizilekua Nafarroan izan duenak zergak betebeharrak pertsonalaren arabera ordaintzeko hautua egiten badu, lurralde komunean edo foru lurraldean egin ahal izanen du kasuan kasuko araudiarekin bat.

3. SEKZIOA Sozietateen gaineko zerga

18. artikulua. Aplikatzekoa den araudia.

1. Tributuak Nafarroako Foru Komunitatean baizik ordaintzen ez dituzten subjektu pasiboek, hurrengo artikuluan aipatzen diren irizpideen arabera, Nafarroako foru araudia aplikatuko dute.

2. Tributuak bi administrazioetan batera ordaintzen dituzten subjektu pasiboek bere zerga helbideari dagokion administrazioaren araudia aplikatuko dute. Halere, zerga helbidea Nafarroan izanagatik ere, aurreko ekitaldian araubide komuneko lurraldean bere eragiketa guztien ehuneko 75 edo gehiago egin duten subjektu pasiboek, ondoko 19, 20 eta 21. artikuluetan ezartzen diren lotuneekin bat, Estatuko araudiari lotuko zaizkio.

19. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du sozietateen gaineko zerga subjektu pasibo hauen kasuan:

a) Zerga helbidea Nafarroan dutenak, aurreko ekitaldian izaniko eragiketen bolumen osoa sei milioi eurotik gorakoa izan ez bada.

b) Nafarroako lurraldean soilik aritzen direnak, aurreko ekitaldian izaniko eragiketen bolumen osoa sei milioi eurotik gorakoa izan bada, zerga helbidea edonon dutelarik ere.

2. Bi lurraldeetan aritzen diren subjektu pasiboek, aurreko ekitaldian izaniko eragiketen bolu-

men osoa sei milioi eurotik gorakoa izan bada, bi administrazioetan ordainduko dituzte zergak, batera, zerga helbidea edonon dutelarik ere. Ordaindu beharreko tributuak ekitaldian zehar lurralde bakoitzean eginiko eragiketen bolumenaren arabera izan dira, ondoko 20 eta 21. artikuluetan ezarritako lotuneekin bat zehazturik.

3. Aurreko 1 eta 2. idatz-zatietan xedatutakoaren ondorioetarako, jardueraren hasieraren kasurako, sei milioi euroko zenbatekoa egiteko hasierako ekitaldian eginiko eragiketen bolumena hartuko da aintzat.

Aurreko lerroak aipatzen dituen eragiketen bolumena eta non gauzatu diren jakin bitartean, halakotzat hartuko dira, ondorio guztietarako, subjektu pasiboak kalkulatzeko dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian eginen dituen eragiketetz duen aurreikuspenen oinarriturik.

4. Ekitaldia urtebete baino laburragoa izanez gero, sei milioi euroko zenbatekoa egiteko kon-tuan hartuko dira urte batean eginiko eragiketak.

5. Eragiketen bolumentzat hartuko da kontra-prestazioen zenbateko osoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetzaren errekargua, baldin badago, kenduta, subjektu pasiboak bere jardueran eginiko ondasun entregetan eta zerbitzu emateetan lortutakoa.

20. artikulua. Eragiketak lurralde batean edo bestean.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, subjektu pasibo batek lurralde batean edo bestean aritzen dela ulertuko da ondasun entregak edo zerbitzu emateak gauzatzen dituen horietan, hurrengo artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki.

Ondasun entregak eta zerbitzu emateak izanen dira balio erantsiaren gaineko zergari buruzko legerian definizio hori duten eragiketak.

21. artikulua. Eragiketak egiteko tokia.

Ondoko eragiketa hauek Nafarroan eginak direla ulertuko da:

A) Ondasunen entregak.

1. Gorputzezko ondasun higigarrien entregak, entrega egiten duen egin edo eraldatutakoak, subjektu pasiboaren fabrikazio edo eraldaketa tokiak Nafarroako lurraldean kokaturik daudenean.

Subjektu pasibo berak Nafarroako lurraldean eta lurralde komunean dituen fabrikazio edo eraldaketa tokiak, entregaturiko ondasunen fabri-

kazio edo eraldaketako azken prozesua Nafarroan eginak badira.

2. Entrega horietan baldin badaude industria elementuak ezarriko Nafarroatik kanpo, Nafarroako lurraldean eginak direla ulertuko da prestatu eta egiteko lanak lurralde horretan gauzatzen direnean, eta instalazio edo muntatze kostua kontraprestazioaren zenbateko osoaren 100eko 15etik beherakoa bada.

Horrekin loturik, entregak Nafarroan eginak ez direla ulertuko da lurralde horretan ezarriko industria elementuak izanik ere, elementu horiek prestatu eta egiteko lanak lurralde komunean egiten direnean eta instalazio edo muntatze kostua kontraprestazioaren zenbateko osoaren 100eko 15etik beherakoa bada.

3. Energia elektrikoaren ekoizleek egindako entregak, hura sortzen duten zentroek Nafarroako lurraldean dutenean kokalekua.

4. Gorputzezko ondasun higiezinaren gainerako entregak, eroslearen eskura Nafarroako lurraldetik jartzen direnean. Eroslearen eskura jartzeko ondasunak garraiatu beharra dagoenean, ulertuko da entregak eginak direla bidalketa edo garraioa hasterakoan ondasunak dauden tokian.

5. Ondasun higiezinaren entregak, horiek Nafarroako lurraldean kokaturik daudenean.

B) Zerbitzu emateak.

1. Zerbitzu emateak Nafarroan eginak direla ulertuko da lurralde horretatik egiten direnean.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaz salbuetsirik daude ondasun higiezinekin lotura zuzena duten emateak, ondasun horien kokalekua Nafarroako lurraldean baldin badute Nafarroan eginak direla ulertuko baita.

3. Era berean, aurreko idatz-zatietan xedatutakotik kanpo daude aseguru eta kapitalizazio eragiketak, horien kasuan hitzarmen ekonomiko honen 37. artikuluan dauden arauak aplikatuko baitira.

C) Aurreko A) eta B) letretan xedatuarekin ere, ondoko eragiketak ere Nafarroan eginak direla ulertuko da, gauzatzen dituen subjektu pasiboak Nafarroako lurraldean duenean zerga helbidea:

1. Nekazaritza, oihangintza, abeltzaintza edo arrantza ustiapenek eta arrantzuntzien armadorek eginiko entregak, eraldaketa prozesurik izan ez duten eta haien labore-lurretatik, ustiapenetatik eta harrapaketatik zuzenean heldu diren produktu naturalenak badira.

2. Garraio zerbitzuak, barne direla aldairakoak, atoiaren eramatekoak eta garabikoak.

3. Garraiobideak errentan emateak.

D) Artikulu honetan ezarritako irizpideen arabera atzerrian egindakotzat hartzen diren eragiketak, halakorik egonez gero, administrazio bati zein besteari esleituko zaizkio, gainerako eragiketen proportzio berdinean.

E) Aurreko artikuluan aurreikusiriko eragiketak betetzen ez dituzten entitateek Nafarroan ordainduko dituzte haien tributuoak Nafarroako lurraldean dutenean zerga helbidea.

22. artikulua. Zergaren kudeaketa tributuo-ordainketa bi administrazioetan egiten denean.

Zergaren kudeaketarako, tributuo-ordainketa bi administrazioetan egiten denean honako arau hauek aplikatuko dira:

1. Zergaren likidazioen emaitza Estatuko eta Nafarroako administrazioei egotziko zaie, lurraldea batean eta bestean, zergaldi bakoitzean, egoniko eragiketen bolumenaren proportzioan, hitzarmen honen 20 eta 21. artikuluetan ezarritakorekin bat.

2. Tributuo ordainketa bi administrazioetan egin behar duten subjektu pasiboek kasuan kasuko ogasun ordezkartzan eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan aurkeztu beharko dituzte xedapen indardunek ezarritako agiriak eta beharrezkoak diren aitorten-likidazioak, epeetan eta erregelamenduzko baldintzak beterik; aitorten-likidazioetan adierazirik egonen da, edozein kasutan, aplikatzekoa den proportzioa eta zein den kuota edo itzulketa administrazio bakoitzean.

3. Bidezkoak diren itzulketak bi administrazioek eginen dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan.

23. artikulua. Ikuskapena.

Ikuskapen lana irizpide hauei jarraiki beteko da:

1.a. Tributuo-ordainketa soilik Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari edo Estatuko administrazioari egin behar dioten subjektu pasiboek ikuskapena administrazio bakoitzeko tributuen ikuskaritzak eginen du.

2.a. Tributuo-ordainketa bi administrazioei egin behar dioten subjektu pasiboek ikuskapena arau hauen arabera beteko da:

Lehengoa. Zerga helbidea lurralde komunean duten subjektu pasiboek ikuskapena Estatuko administrazioeko organoek eginen dute, eta subjektu pasiboaren tributuo egoera erregularizatuko dute bidenabar, bi administrazio eskudunei dagoen tributuo-ordainketaren proportzioa barne.

Bigarrena. Zerga helbidea Nafarroan duten subjektu pasiboek ikuskapena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko organo eskudunek beteko dute, Estatuko administrazioaren laguntza alde batera utzi gabe, eta ondorioak izanen ditu administrazio eskudunetan, tributuo-ordainketan horiei dagokien proportzioa barne.

Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian bere eragiketarik guztien 100eko 75 edo gehiago araubide komuneko lurraldean egin badu, aurreko 19, 20 eta 21. artikuluetan ezarritako lotuneen arabera, eskumena Estatuko administrazioarena izanen da, Foru Komunitateko administrazioaren laguntza alde batera utzi gabe.

Hirugarrena. Ikuskapeneko jarduketak administrazio eskudunen araudiari lotuko zaizkio, aurreko arauetan aurreikusitakoarekin bat.

Jarduketa horien ondoriozko emaitza bi administrazioek ordaindu beharreko zor bat edo itzuli beharreko zenbateko bat denean, kobrantza edo ordainketa administrazio jarduleak eginen du, eta horrek ez ditu baztertzen elkarri egin beharreko konpentsazioak. Administrazio eskudunak bere jarduketan emaitzak jakinaraziko dizkio ukitutako administrazioari. Horretarako, prozedura bat ezarriko da, egiaztatze eta ikertze jarduketan ondorio den zorra dagokion administrazioak jaso dezan.

Laugarrena. Aurreko arauetan ezarritakoak ez ditu alde batera utziko Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, bere lurraldean, egiaztapen eta ikerketaren arloan dituen ahalmenak; jarduketek ezin dute ondorio ekonomikorik ekarri zergadunentzat administrazio eskudunen organoen jarduketan ondorioz eginiko behin betiko likidazioen aldetik.

Bosgarrena. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioek ondorioak izanen dituzte subjektu pasiboarentzat likidaturiko bete-beharren aldetik; hori, halere, ez da eragozpen izanen bi administrazioek, egiaztapenak egin ondoren, proportzioak behin betikoz adosteko.

24. artikulua. Zergaren konturako ordainketa, tributuo-ordainketa bi administrazioetan egiten denean.

1. Zergak bi administrazioei ordaindu behar dizkieten subjektu pasiboek horietan eginen dute zergaren konturako ordainketa, zerga eskatzea dagoenean, lurralde bakoitzean eginiko eragiketen bolumenaren proportzioan. Horretarako, zergaren azken aitorten-likidazioan ezarritako proportzioa aplikatuko da.

Aurreko lerrokadan xedatutakoarekin ere, beste proportzio bat, desberdina, aplikatu ahalko

da ondoko kasu hauetan, betiere koordinazio batzordeari jakinarazi ondotik.

a) Bat-egitea, zatitzea, aktiboen ekarpena eta balore-trukea.

b) Jarduera hasi, utzi, handitu edo murriztea lurralde komunean edo foru lurraldean, baldin eta idatz-zati honen lehenbiziko lerrokadan zehaztu den irizpidearen arabera kalkulaturiko proportzioaren aldaketa nabarmena eragiten badu.

Nolanahi ere, aldaketa nabarmena dela ulertuko da lurraldeetako edozeini aplikatzekoa zaion proportzioa ehuneko 15 edo gehiago aldatzea eragiten duenean.

2. Administrazio bakoitzari eginiko konturako ordainketa haietako bakoitzari dagokion kuotaren zatitik kenduko da.

25. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren sorburuko atxikipenak eta konturako dirusarrerak.

Sozietateen gaineko zergaren sorburuko atxikipenetan eta konturako dirusarreretan aplikatzekoak izanen dira hitzarmen honetan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarako gai horretaz ezarri diren irizpideak, bai eta 16. artikuluan, administrazio batean edo bestean eginiko konturako ordainketen eraginkortasunari buruz aurreikusitakoa ere.

26. artikulua. Errenten egozketa- eta esleipen- araubideko entitateak.

1. Errenten egozketa-araubideko entitateei aurreko artikuluetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkie. Bazkideei egotzitako errentei dagokien zerga ordainarazteko, zein zerga ordaindu behar duten, horren arauak hartuko dira kontuan: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta Sozietateen gaineko zerga.

2. Errenta esleipenaren kasuan, araubide horri loturiko enteek zerga helbidea non duten, bertako administrazioak beteko du haien kudeaketa eta ikuskapena.

Haien bazkideei, erkidegokideei edo partaideei esleituriko errenta ordainarazteko, zein zerga ordaindu behar duten, horren arauak hartuko dira kontuan: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta sozietateen gaineko zerga.

27. artikulua. Batasunen, aldi baterako elkar-teen eta multzo fiskalen tributua araubidea.

1. Interes ekonomikoko batasunen eta enpresen aldi baterako elkarketan tributua araubidea

Nafarroakoa izanen da horren kide diren entitate guztiak foru araudiari loturik daudenean.

Entitate horiek bere bazkideei egotziko diete lurralde batean eta bestean eginiko eragiketen zenbatekoaren zatia, eta bazkideek hura kontuan hartu beharko dute bere eragiketen proportzioa zehazterakoan.

2. Multzo fiskalen tributua-ordainketa zehazteko honako arau hauek aplikatuko dira:

1.a. Zerga baterakuntzako araubidea Foru Komunitatearena izanen da sozietate menderatzailea eta mendeko guztiak foru araudiari loturik daudenean banakako tributua-ordainketaren araubidean. Horretarako, sozietate menderatzaileak araudi komunari loturiko mendeko sozietateak utzi ahalko ditu multzotik kanpo, eta azken horiek aurreko artikuluetan adierazitakoari jarraikiz eginen dute banakako tributua-ordainketa, ondorio guztiekin.

Edozein kasutan ere, aplikatuko den araudia izanen da Estatuak, uneoro, multzo fiskala, sozietate menderatzaile, mendeko sozietate, menderakuntza maila eta multzoaren barneko eragiketarako ezartzen duenaren berdin-berdina.

2.a. Gainerako kasuetan, aurreko arauak aipatzen dituen multzo fiskalek araudi komunari loturiko mendeko sozietateak multzotik kanpo uzten ez dituzten multzo fiskalen kasuan ere, tributua-ordainketa bateratuaren araubidea Estatuko administrazioak izanen da.

3. Tributua-ordainketa bi administrazioetan eginen duten multzo fiskalen zerga baterakuntzako araubidea aplikatzeko honako arau hauek beteko dira:

1.a. Multzo fiskaleko kide diren sozietateek banakako tributua-ordainketaren araubiderako ezarritako aitorpena aurkeztuko dute, arau orokorreari jarraiki.

Aurreko lerrokadan xedatutakoarekin ere, sozietate menderatzaileak multzo fiskalaren kontabilitateko egoera-orri bateratuak aurkeztuko dizkio administrazio bakoitzari.

2.a. Multzo fiskalak bi administrazioei eginen die tributua-ordainketa, lurralde batean eta bestean eginiko eragiketen bolumenaren arabera emanez bakoitzari.

Ondorio horietarako, lurralde bakoitzean eginiko eragiketen bolumena izanen da multzo fiskaleko kide den sozietate bakoitzak lurralde horretan eginiko eragiketen batura edo eransketa, multzoen artean egin beharreko deuseztapenen aurretik.

4. SEKZIOA

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga

28. artikulua. Aplikatzekoa den araudia eta zergaren ordainarazpena.

1. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ordainarazpenean Foru Komunitateak arau funtsezko eta formazko arauak aplikatuko ditu, Estatuak uneoro ezarritakoen eduki berekoak. Halarik ere, Foru Komunitateko administrazioak aitorten eta ordainketarako ereduak onartu ahalko ditu –horietan jaso beharko dira, gutxienez, lurralde komunekoetan jasotzen diren datuak– baita adierazi ere likidazioaldi bakoitzeko ordainketa-epeak, Estatuko administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izanen ez direnak.

Aurrekoarekin ere, egoitza atzerrian duten pertsonen edo entitateen establezimendu iraunkorrei, helbidea Nafarroan dutenei, sozietateen gaineko zergaren foru araudia zaie aplikatzekoa, 18. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko araudian aurreikusitako baldintzak betetzen dituela-eta, zergadunak hautatzen badu tributurordainketa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egitea aukerako araubidea aplikatzeko, foru araudia hartuko da kontuan, betiere Nafarroan lortutako lan etekinek eta enpresa edo lanbide jarduerenek Espainian lortutako errenta osoaren zati handiena egiten badute. Zergadunak itzulketarako eskubidea edukiz gero, Foru Komunitateak ordaindu beharko du, errentak Espainiako lurraldeko zein tokitan eskuratu diren gorabehera.

2. Zergaren ordainarazpenak arau hauek bete beharko ditu:

a) Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak kargatzen direnean, Foru Komunitateak ordainaraziko du zerga errentak Nafarroan lortu edo sortu direla ulertzen denean hitzarmen ekonomiko honen 29. artikuluan ezarritako irizpideak aplikaturik.

b) Establezimendu iraunkorren bitartez lortutako errentak kargatzen direnean, administrazio batek zein besteak ordainaraziko dute zerga, edo biek batera, 19. artikuluan dauden arauekin bat.

c) Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga bereziaren kasuan, kargaturiko ondasun higiezinak kokalekua non duen, lurralde komunean edo Nafarroan, Estatuko administrazioak edo Foru Komunitatekoak ordainaraziko dute, hurrenez hurren.

29. artikulua. Atzerrian bizi direnek Nafarroako lurraldean lorturiko errentak.

1. Hitzarmen ekonomiko honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, atzerrian bizi direnek Nafarroako lurraldean lortu edo sorturiko errentatzat hartuko dira honakoak:

a) Establezimendu iraunkorren bitartez lorturiko errentak, edozein motatakoak, hitzarmen ekonomiko honen 19. artikuluan jasotako arauen arabera.

b) Ustiapen ekonomikoetako errentak, establezimendu iraunkorrik gabe lortutakoak, jarduerak Nafarroako lurraldean gauzatzen badira.

c) Zerbitzu ematek heldu diren errentak, hala nola azterlanak, proiektuak, laguntza teknikoa, kudeaketarako laguntza betetzetik, baita lanbide zerbitzuetatik ere, zerbitzua Nafarroako lurraldean eman edo erabiltzen denean. Nafarroako lurraldean erabilitakoak izanen dira lurralde horretan gauzaturiko enpresa edo lanbide jardueretarako baliatzen diren zerbitzu-emateak, edo lurralde horretan berean kokaturiko ondasunen inguruak direnak.

Zerbitzua erabiltzeko tokia hartuko da kontuan hura eta zerbitzua emateko tokia direnean.

d) Lanaren etekinak:

a') Nafarroako lurraldean gauzaturiko jarduera pertsonal batetik heldu direlarik, zuzenean nahiz zeharka.

b') Foru Komunitateko administrazioak ordaindutako lansari publikoak direlarik.

c') Pentsioak eta antzeko beste prestazioak, Nafarroako lurraldean betetako lanpostu batetik heldu direlarik.

d') Era guztietako entitateetako administrazioen eta administrazio kontseiluetako, zeregin horiek betetzen dituzten batzordeetako edo ordezkari organoetako kideen lansariak, artikuluko honen 3. idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat.

e) Nafarroako lurraldean artistek edo kirolariak betetako jarduketa pertsonaletik, eta jarduketa horrekin loturiko beste edozein jardueretatik zuzenean nahiz zeharka heldu diren errentak, artista edo kirolaria ez den beste pertsona edo entitate bati esleitzen bazaizkio ere.

f) Nafarroako entitate publikoen funts berekietan parte hartzetik heldu diren dibidenduak eta bestelako etekinak, bai eta, artikuluko honen 3. idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat, entitate pribatuen funts berekietan parte hartzetik heldu direnak ere.

g) Higigarrien kapitalaren korrituak, kanonak eta bestelako etekinak, zerga helbidea Nafarroan duten pertsona fisikoek edo Nafarroako entitate publikoek ordainduak direnean, edo, artikuluko honen 3. idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat, entitate pribatuek edo establezimendu iraunkorrek, betiere Nafarroako lurraldean erabilitako kapital prestazioen ordaina bada.

Gainerako kasuetan kontuan hartuko dena da kapitala, zeinaren prestazioa ordaintzen baita, non erabili den.

h) Nafarroako lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo horien inguruko eskubideetatik zuzenean nahiz zeharka heldu diren etekinak.

i) Nafarroako pertsonak edo entitate publikoek jaulkiriko baloreek eragindako ondare gehikuntzak, bai eta, artikuluko honen 3. idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat, entitate pribatuek jaulkiriko baloreek eragindakoak ere.

j) Nafarroako lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo lurralde horretan bete edo baliatu beharko liratekeen eskubideetatik heldu diren ondare gehikuntzak. Zehazki, letra honetan sarturik daude honakoak:

Lehena. Egoitza duen zein egoitzarik gabeko entitate baten eskubide edo partaidetzetatik heldu diren ondare gehikuntzak, entitate horren aktiboak, nagusiki, Nafarroako lurraldean dauden ondasun higiezin ez osatua bada.

Bigarrena. Egoitza duen zein egoitzarik gabeko entitate baten eskubide edo partaidetzak —titularri Nafarroako lurraldean kokaturik dauden ondasun higiezinaren gozamenarako eskubidea esleitzen diotenak— eskualdatzetik heldu diren ondare gehikuntzak.

k) Nafarroako lurraldean kokaturik dauden beste ondasun higigarri batzuetatik edo lurralde horretan bete edo baliatu behar diren eskubideetatik heldu diren ondare gehikuntzak.

l) Nafarroako lurraldean kokaturik dauden eta enpresa edo lanbide jardueraren batekin loturirik ez duten hiri-ondasun higiezinaren titular diren zergadun pertsona fisikoei egotzitako errentak.

m) Ondare gehikuntzak, zergadunaren ondareari gehitzen zaizkionean Nafarroako lurraldean kokaturiko ondasunak edo lurralde horretan bete behar diren edo baliatzen diren eskubideak, aurretiazko eskualdaketa batetik heldu ez bada ere, konparazio batera jokoan izaniko irabaziak.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako irizpideen arabera errenta bat bi lurraldeetan batera lortu dela ulertu daitekeen kasuetan, horren gaineko tri-

butu-ordainketa Nafarroako Foru Komunitatean egin beharko da ordaintzailearen zerga helbidea, pertsona fisikoa bada, Nafarroan dagoenean; pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, artikuluko honen 3. idatz-zatian xedatutakoak aginduko du.

3. Aurreko 1. idatz-zatiaren d) letrako d') azpi-letrak eta f), g) eta i) letrak aipatzen dituzten kasuetan, bai eta 2. idatz-zatian aurreikusitako kasuan ere, entitate pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutako errentetatik zenbateko hauek Nafarroako lurraldean lortu edo sortu direla ulertuko da:

a) Sozietateen gaineko zerga Nafarroari baizik ordaintzen ez dioten entitateak edo establezimendu iraunkorrek direnean, ordaindutako errenta guztiak.

b) Sozietateen gaineko zerga bi administrazioei ordaintzen dieten entitateak edo establezimendu iraunkorrek direnean, Nafarroan eginiko eragiketaren bolumenaren proportzioan ordaintzen dituzten errenten zatia.

Halarik ere, letra horrek aipatzen dituen kasuetan, etekin guztien ordainarazpenaren eskumena duen administrazioa izanzen da egoiliar ez denaren ordeztuzko aurkezten duten pertsonak, entitateak edo establezimendu iraunkorrek ohiko bizilekua edo zerga helbidea duten lurraldekoa; horrek ez du baztertuko beste administrazioari eman beharreko konpentsazioa, azken horren lurraldean eginiko eragiketen bolumenaren proportzioari dagokion zatian.

Era berean, ez-egoiliarrei egin beharreko itzulketak ez-egoiliarren ordeztuzko aurkezten duten pertsonak, entitateak edo establezimendu iraunkorrek ohiko bizilekua edo zerga helbidea duten lurraldeko administrazioak hartu ditu bere kargu; horrek ez du baztertuko beste administrazioari eman beharreko konpentsazioa, azken horren lurraldean entitate ordaintzaileak eginiko eragiketen bolumenaren proportzioari dagokion zatian.

30. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Establezimendu iraunkorrek egindako ordainketa zatituak eta jasotzen dituzten errentetatik egiten zaizkien zerga atxikipenak eta konturako dirusarrerak aurreko 1 eta 3. sekzioetan ezarritako arauari jarraiki exijituko dira.

2. Establezimendu iraunkorrik gabe aritzen diren zergadunek lortutako errentei dagozkien atxikipenak eta konturako dirusarrerak, berriz, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera non ulertzen den lortu direla, lurralde horretako admi-

nistrazioak exijituko ditu. Ikuskapena, halaber, artikuluko berean xedatutakoarekin bat dagokion administrazioko organoek eginen dute.

Aurreko artikuluko 1. idatz-zatiaren d) letrako d') azpiletrak eta f), g) eta i) letrek aipatzen dituzten kasuetan, bai eta 2. idatz-zatian aurreikusitako kasuan ere, Foru Komunitateak exijituko ditu, atxikipena egiteko betebeharrak duenak Nafarroan eginiko eragiketen bolumenaren proportzioan, aurreko 3. sekzioan zehaztutako arauak aplikaturik.

3. Orobat aplikatzekoa izanen da administrazio batean zein bestean eginiko konturako ordainketen eraginkortasunari buruz 16. artikuluan xedatutakoa.

5. SEKZIOA

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga

31. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateak kasu hauek ordainaraziko du oinordetzak eta dohaintzak kargatzen dituen zerga:

a) Herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza moduren bidez ondasun eta eskubideak eskuratzean, eta bizi aseguruaren onuradunek heriotza dela-eta jasotako zenbatekoetan, kausatzaileak ohiko bizilekua Nafarroan duenean edo, atzerrian badu ere, nafartasun politikoa gorde baldin badu Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluari jarraiki.

b) Ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideak dohaintza bidez edo beste edozein negozio juridikoren bidez –doakotasunezkoa eta "inter vivos"– eskuratzean, ondasun edo eskubide horiek Nafarroako lurraldean kokaturik daudenean; gainerako ondasun eta eskubideak eskuratzean, dohaintza hartzaileak edo hartzaileak lurralde horretan duenean ohiko bizilekua.

Ondorio horietarako, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira baloreen doakotasunezko eskualdaketak, Balore merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 108. artikuluko aipatzen dituenak.

c) Aurreko letretan aurreikusirik ez dauden kasuetan, zergaduna atzerrian badu erresidentzia eta eskuratutako ondasun eta eskubide guztiak Nafarroako lurraldean kokatuak badaude edo bertan baliatu ahal badira edo bete behar badira; halaber, bizi aseguruaren kontratuetatik heldu diren zenbatekoak jasotzeagatik kontratua Nafarroako lurraldean egina bada bertan egoitza duten ase-

guru entitateekin edo bertan aritzen diren atzerriko entitateekin.

2. Dokumentu batean dohaintza emaile bakar batek dohaintza hartzaile berberaren alde egiten badu ondasunen, eskubideen eta kopuruaren dohaintza, eta aurreko 1. idatz-zatian zehaztutako irizpideak aplikaturik, eskuraketa lurralde komunean eta Nafarroakoan egina dela ulertu behar izanen da: eskualdatutako guztien balioari kasuan kasuko lurraldeko araudiaren arabera legokiokeen batez besteko tasa aplikaturik dohaintzaren xede direnek, zeinen eskuraketa esleitzen baitzaio, egiten duten balioari, hortik ateratzen dena.

3. Dohaintzak metatzea bidezkoa denean, Nafarroari dagokio egun eskualdaturiko ondasun eta eskubideen balioari metatu guztien balioari, kasuan kasuko lurraldeko araudiaren arabera, legokiokeen batez besteko tasa aplikatuz ateratzen den kuota.

Ondorio horietarako, metaturiko ondasun eta eskubide guztiak aurreko dohaintzetatik heldu direnak eta egungo eskualdaketaren xede direnak direla ulertuko da.

III. KAPITULUA

Zeharkako zergak

1. SEKZIOA

Balio erantsiaren gaineko zerga

32. artikulua. Aplikatzekoa den araudia.

Balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpenean, baliokidetzako erreargua barne, Nafarroak Estatuko lurraldean unean-unean indarra duten oinarrizko printzipioak eta funtsezko eta formazko arau berberak aplikatuko ditu. Halere, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak aitorpen eta ordainketarako ereduak onartu ahaliko ditu –horietan jaso beharko dira, gutxienez, lurralde komunekoetan jasotzen diren datuak– baita adierazi ere likidazioaldi bakoitzeko ordainketa-epeak, Estatuko administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izanen ez direnak.

33. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du balio erantsiaren gaineko zerga subjektu pasibo hauen kasuan:

a) Zerga helbidea Nafarroan dutenak, aurreko urtean izaniko eragiketen bolumen osoa sei milioi eurotik gorakoa izan ez bada.

b) Nafarroako lurraldean soilik aritzen direnak, aurreko urtean izaniko eragiketen bolumen osoa

sei milioi eurotik gorakoa izan bada, zerga helbidea edonon dutelarik ere.

2. Bi lurraldeetan aritzen diren subjektu pasiboek, aurreko urtean izaniko eragiketen bolumen osoa sei milioi eurotik gorakoa izan bada, bi administrazioetan ordainduko dituzte zergak, batera, zerga helbidea edonon dutelarik ere. Ordaindu beharreko tributuak urte naturalean lurralde bakoitzean eginiko eragiketen bolumenaren arabera izan dira, ondoko idatz-zatietan ezarritako lotuekin bat zehazturik.

3. Eragiketen bolumentzat hartuko da kontraprestazioen zenbateko osoa, kenduta balio erantsiaren gaineko zerga eta, baldin badago, subjektu pasiboak betetako enpresa edo lanbide jarduera guztietan eginiko ondasun entregetan eta zerbitzu emateetan lortutako baliokidetzaren errekargua.

4. Aurreko 1 eta 2. idatz-zatietan xedatutakoaren ondorioetarako, jardueraren hasieraren kasurako, sei milioi euroko zenbatekoa egiteko lehen urte naturalean eginiko eragiketen bolumena hartuko da aintzat.

Jardueraren lehenbiziko urtea urte naturalarekin bat ez badator, aurreko kopurua egiteko kon-tuan hartuko dira urte batean eginiko eragiketak.

Urte horretan, tributu-ordainketa behin-behinekoz egiten da, jardueraren hasierako ekitaldian egiten diren eragiketen bolumenaz dagoen aurreikuspenean oinarriturik; horrek ez du bazter-tzen erregularizazioa egitea, aurrerago, bidezkoa denean.

5. Subjektu pasibo batek lurralde batean aritzen dela ulertuko da ondasun entregak edo zerbitzu emateak horretan gauzatzen dituzenean, arau hauetan ezarritako lotuekin bat.

6. Zergari lotutako eragiketak Nafarroan eginak direla ulertuko da arau hauen arabera:

A) Ondasunen entregak.

1. Gorputzezko ondasun higigarrien entregak, entrega egiten duenak egin edo eraldatutakoak, subjektu pasiboaren lantegiak edo eraldaketa tokiak Nafarroako lurraldean kokaturik daudenean.

Subjektu pasibo berak Nafarroako lurraldean eta lurralde komunean dituzten lantegiak edo eraldaketa tokiak, entregaturiko ondasunen fabrikazio edo eraldaketako azken prozesua Nafarroan gauzatu denean.

2. Entrega horietan baldin badaude industria elementuak ezarritik Nafarroatik kanpo, Nafarroa-

ko lurraldean eginak direla ulertuko da prestatu eta egiteko lanak lurralde horretan gauzatzen direnean, eta instalazio edo muntatze kostua kontraprestazioaren zenbateko osoaren 100eko 15etik beherakoa bada.

Horrekin loturik, entregak Nafarroan eginak ez direla ulertuko da lurralde horretan ezarritako industria elementuak izanik ere, elementu horiek prestatu eta egiteko lanak lurralde komunean egiten direnean eta instalazio edo muntatze kostua kontraprestazioaren zenbateko osoaren 100eko 15etik beherakoa bada.

3. Energia elektrikoaren ekoizleek egindako entregak, hura sortzen duten zentroek Nafarroako lurraldean dutenean kokalekua.

4. Gorputzezko ondasun higigarrien gainerako entregak, eroslearen eskura Nafarroako lurraldetik jartzen denean. Eroslearen eskura jartzeko ondasunak garraiatu beharra dagoenean, ulertuko da entregak eginak direla bidalketa edo garraioa hasierakoan ondasunak dauden tokian.

5. Ondasun higiezinaren entregak Nafarroako lurraldean kokaturik daudenean.

B) Zerbitzu emateak.

1. Zerbitzu emateak Nafarroan eginak direla ulertuko da lurralde horretatik egiten direnean.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoarekin ere, ondasun higiezinarekin lotura zuzena duten zerbitzu emateak ondasun horiek kokalekua duten lurraldean eginak daudela ulertuko da.

3. Era berean, aurreko idatz-zatietan xedatutakotik kanpo daude aseguru eta kapitalizazio eragiketak, horien kasuan hitzarmen ekonomiko honen 37. artikuluan dauden arauak aplikatuko baitira.

C) Aurreko A) eta B) letretan xedatuarekin ere, ondoko eragiketa hauetan, Estatuko administrazioak izanen du zerga ordainarazteko eskumena subjektu pasiboaren zerga helbidea lurralde komunean dagoenean eta Nafarroako Foru Komunitateak, berriz, Nafarroako lurraldean duenean:

1. Nekazaritza, oihangintza, abeltzaintza edo arrantza ustiapenek eta arrantzuntzien armadorek eginiko entregak, eraldaketa prozesurik izan ez duten eta haien labore-lurretatik, ustiapenetatik eta harrapaketetatik zuzenean heldu diren produktu naturalenak badira.

2. Garraio zerbitzuak, barne direla aldairakoak, atoiaren eramatekoak eta garabikoak.

3. Garraibideak errentan emateak.

7. Europako Batasunaren barreneko eskuraketan arloan zerga ordainarazteko arau hauek aplikatuko dira:

a) Zerga Nafarroak ordainaraziko du tributuetan Nafarroako Foru Komunitateari baizik egiten ez dioten subjektu pasiboek Europako Batasunaren barrenean eginiko eskuraketetan.

b) Tributuetan ordainketa bi administrazioetan batera egiten duten subjektu pasiboek Europako Batasunaren barrenean eginiko eskuraketetan, bati zein besteari dagokio, hurrengo artikuluan 1. arauan xedatutakoa aplikatuz heldu den proportzio berean.

c) Aurreko a) eta b) letretan ezarritako irizpideak aplikatzekoak izanen dira halaber ondasunen Europako barreneko garraioetan, horien zerbitzu osagarrietan eta aurrekoen bitartekaritza zerbitzuetan, destinatzaileak zerbitzuak ematen dituenari jakinaraziz gero Espainian, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, emaniko identifikazio zenbakia.

d) Balio erantsiaren gaineko zergaz erabat salbuetsirik dauden edo hari loturik ez dauden partikularrek edo pertsonak edo entitateek Europako Batasunaren barrenean garraio bide berriak erostegatik, zerga ordainaraziko du ibilgailu horiek behin betiko matrikulazioa egin duten lurraldeko administrazioak, komunekoak edo Nafarroakoak.

8. Aurreko 7. idatz-zatian xedatutakoa baztertu gabe, ondoko eragiketa hauetan, Estatuko administrazioak izanen du zerga ordainarazteko eskumena subjektu pasiboaren zerga helbidea lurralde komunean dagoenean eta Nafarroako Foru Komunitateak, berriz, Nafarroako lurraldean duen:

a) Europako Batasunaren barreneko ondasun-eskuraketak, hautaketa dela-eta edo zergaren araudian ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik zergari loturik daudenak, zergaren kenkari osorako edo partzialerako eskubidea eragiten ez duten eragiketak baizik egiten ez dituzten subjektu pasiboek edo enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoek egindakoak badira.

b) Europako Batasunaren barreneko ondasun-eskuraketak, araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian eta baliokidetzaren errekarguaren araubidean.

9. Zerga enpresaburu eta profesionalak aplikatzen zaien lurraldean ezarritako ez dauden pertsonak edo entitateek eginiko ondasun entrega eta zerbitzu emateetan, enpresaburu eta profesional horiek horien subjektu pasibo bihurtzen direnean,

tributu-ordainketa aurreko 7. idatz-zatiaren a) eta b) arauak aplikatuz egiten da.

10. Espainian ezarritako ez dauden enpresaburuek edo profesionalak eginiko eragiketei –aurreko idatz-zatian adierazitako inguruabarra gertatzen ez denean– dagokien zerga aplikatzean, Estatuko administrazioak ordainaraziko du tributua eta egin beharreko itzulketak bere kargu izanen dira.

11. Subjektu pasiboek jasan edo ordaindutako balio erantsiaren zergan bidezkoak diren kenkariak, edozein dela ere ordainarazpena egin behar duen administrazioa, bi administrazioetan izanen dituzte ondorioak, hitzarmen honetan xedatutakoarekin bat.

12. Artikulu honetan aurreikusitako eragiketak gauzatzen ez dituzten subjektu pasiboek Foru Komunitatean ordainduko dituzte zergak, zerga helbidea Nafarroako lurraldean baldin badute. Bereziki ulertuko da idatz-zati honetan sarturik daudela enpresa edo lanbide jardueran hasi diren arren ondasun entregak egiten edo zerbitzuak ematen hasi ez diren subjektu pasiboak.

34. artikulua. Zergaren kudeaketa eta ikuskapena.

Zergaren kudeaketarako, tributuetan ordainketa bi administrazioetan egiten denean honako arau hauek aplikatuko dira:

1.a. Zergaren likidazioen emaitza Estatuko eta Nafarroako administrazioei egotziko zaie, kontraprestazioen bolumenaren proportzioan, balio erantsiaren gaineko zerga eta, halakorik bada, baliokidetzaren errekargua –kargaturiko ondasun entzegei eta zerbitzu ematei dagokiena– kenduta, bai eta kenkarirako eskubidea eragiten duten salbuetsiak ere, kasuan kasuko lurraldean urte naturalean eginak direla ulertzen bada.

2.a. Urte natural bakoitzean behin-behineko aplikatu daitezkeen proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztutakoak izanen dira.

Jardueraren lehenbiziko urte naturaleko likidazioaldietan behin-behineko aplikatzekoak den proportzioa subjektu pasiboak ezarritako du lurralde bakoitzean aurreikusirik dauzkan eragiketen arabera, amaierako erregularizazioa ezertan ukatu gabe.

Aurreko bi lerroketan aurreikusitakoarekin ere, beste proportzio bat, desberdina, aplikatu ahalko da ondoko kasu hauetan, betiere hitzarmen ekonomiko honen 67. artikuluan aurreikusitako koordinazio batzordeari jakinarazi ondotik:

a) Bat-egitea, zatitzea, aktiboen ekarpena eta balore-trukea.

b) Jarduera hasi, utzi, handitu edo murriztea lurralde komunean edo foru lurraldean, baldin eta idatz-zati honen lehenbiziko lerrokadan zehaztu den irizpidearen arabera kalkulaturiko proportzioaren aldaketa nabarmena eragiten badu.

Nolanahi ere, aldaketa nabarmena dela ulertuko da lurraldeetako edozeini aplikatzeko zaion proportzioa ehuneko 15 edo gehiago aldatzea eragiten duenean.

3.a. Urte natural bakoitzean, zergaren azken aitorten-likidazioan subjektu pasiboak behin betiko proportzioak kalkulatu dituzten aldi horretan gauzaturiko eragiketen arabera, eta aurreko likidazioaldietan administrazioetako bakoitzarekin eginiko aitortpenen erregularizazioa egiten du.

4.a. Tributu ordainketa bi administrazioetan egin behar duten subjektu pasiboek kasuan kasuko ogasun ordezkarietan eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan aurkeztu beharko dituzte xedapen indardunek ezarritako agiriak eta beharrezkoak diren aitorten-likidazioak, epeetan eta erregelamenduzko baldintzak beterik; aitorten-likidazioetan adierazirik egonen dira, edozein kasutan, behin-behineko edo behin betikoz aplikatzekoak diren proportzioak eta zein den kuota edo itzulketa administrazio bakoitzean.

5.a. Likidazioaldi bakoitzean ordainarazitako zerga-kuoten zenbatekoa aldi horretan berean kenkariaren xede izan daitezkeen kuoten zenbatekoa baino handiagoa denean, subjektu pasiboek ateratzen diren kuota horiek ordaindu beharko dituzte Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan eta kasuan kasuko ogasun ordezkarietan, ateratzen den proportzioan.

6.a. Likidazioaldi bakoitzean sortutako kenkariak, haien zenbatekoa ordainarazitako kuotak baino handiagoa izateagatik, aplikatzerik izan ez duten subjektu pasiboek eskubidea izanen dute bere aldeko saldoa itzultzeko eskatzeko, bidezkoa den kasuetan, zergaren araudiari jarraiki.

Bidezkoak diren itzulketak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta estatukoak egiten dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan.

7.a. Ikuskapen lana irizpide hauei jarraiki beteko da:

a) Tributu-ordainketa soilik Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari edo Estatuko administrazioari egin behar dioten subjektu pasiboek ikuskapena administrazio bakoitzeko tributuen ikuskaritzak egiten du.

b) Tributu-ordainketa lurralde komunean eta Nafarroakoan eginiko eragiketen bolumenaren proportzioan egin behar duten subjektuen ikuskapena arau hauen arabera beteko da:

Lehenena. Subjektu pasiboek zerga helbidea lurralde komunean dutenean, egiaztapena eta ikerketa Estatuko administrazioko organoek egiten dute, eta subjektu pasiboaren tributu egoera erregularizatuko dute bidenabar, bi administrazio eskudunei dagoen tributu-ordainketaren proportzioa barne.

Bigarrenena. Subjektu pasiboek zerga helbidea Nafarroan dutenean, egiaztapena eta ikerketa Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko organo eskudunek beteko dute, Estatuko administrazioaren laguntza alde batera utzi gabe, eta ondorioak izanen ditu administrazio eskudunetan, tributu-ordainketan horiei dagokien proportzioa barne.

Subjektu pasiboak aurreko urtean bere eragiketa guztien 100eko 75 edo gehiago araubide komunean lurraldean egin badu, lotunean arabera, eskumena Estatuko administrazioarena izanen da, Foru Komunitateko administrazioaren laguntza alde batera utzi gabe.

Hirugarrena. Ikuskapeneko jarduketak administrazio eskudunaren araudiari lotuko zaizkio, aurreko arauetan aurreikusitakoarekin bat.

Jarduketa horien ondoriozko emaitza bi administrazioek ordaindu beharreko zor bat edo itzuli beharreko zenbateko bat denean, kobrantza edo ordainketa administrazio jarduleak egiten du, eta horrek ez ditu baztertzen elkarri egin beharreko konpentsazioak. Administrazio eskudunak bere jarduketan emaitzak jakinaraziko dizkio ukitutako administrazioari. Horretarako, prozedura bat ezarriko da, egiaztatze eta ikertze jarduketan ondorio den zorra dagokion administrazioak jaso dezan.

Laugarrena. Aurreko arauetan ezarritakoak ez ditu alde batera utziko Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, bere lurraldean, egiaztapen eta ikerketaren arloan dituen ahalmenak; jarduketek ezin dute ondorio ekonomikorik ekarri zergadunentzat administrazio eskudunen organoen jarduketan ondorioz eginiko behin betiko likidazioen aldetik.

Bosgarrena. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioek ondorioak izanen dituzte subjektu pasiboarentzat likidaturiko bete-beharren aldetik; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen bi administrazioek, egiaztapenak egin ondoren, proportzioak behin betikoz adosteko.

8.a. Europako Batasunaren barreneko entrega eta eskuraketak jasotzen dituzten aitortenak eta hirugarrenekin eginiko eragiketei buruzkoak subjektu pasiboen egiaztapen eta ikerketarako esku-mena esleiturik duen tributu administrazioan aurkeztuko dira.

2. SEKZIOA Zerga bereziak

35. artikulua. Zerga berezien ordainarazpena.

1. Foru Komunitateak ordainaraziko ditu fabrikazioaren gaineko zerga bereziak horien sortza-pena Nafarroan gertatzen denean.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien itzulketak kuotak, zeinen itzulketa eskatzen baita, jaso dituen administrazioak egingen ditu. Halere, kuotak zein administrazioan ordaindu ziren zehazterik ez dagoenean, itzulketarako eskubidea zein lurralde-tan sortzen den, horko administrazioak egingen du itzulketa.

Nafarroan kokaturiko establezimenduen gaineko kontrola eta baimen araubidea Foru Komunitatearen esku egonen da. Nolanahi ere, zerga gordailuak baimentzeko beharrezkoa izanen da alde zurretik jakinaraztea Estatuko administrazioari.

2. Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia Nafarroako Foru Komunitateak exijituko du garraiobideen behin betiko matrikulazioa Nafarroako lurraldean egiten denean.

Matrikulazioa arlo horretan indarra duen araudiak ezarritako irizpideen arabera egingen da. Zehazki, pertsona fisikoek zerga helbidea duten probintzian matrikulatuko dute garraiobidea.

Zerga honen kuoten itzulketak ordainketa egin zen administrazioak egingen ditu.

3. idatz-zatian xedatutakoarekin ere, Foru Komunitateak igo ahalko ditu karga tasak, Estatuak uneoro ezartzen dituen tasen 100eko 10, gehienez.

3. Foru Komunitateari dagozkion zerga berezien ordainarazpenean, Nafarroak Estatuko lurraldean uneoro indarra duten oinarritzko printzipioak eta funtsezko eta formazko arau berberak aplikatuko ditu. Halere, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak aitorten eta ordainketarako ereduak onartu ahalko ditu –horietan jaso beharko dira, gutxienez, lurralde komunekoetan jasotzen diren datuak– baita adierazi ere likidazioaldi bakoitzeko ordainketa-epeak, Estatu-koa administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izanen ez direnak.

3. SEKZIOA Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga

36. artikulua. Aplikatzekoa den araudia eta zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateak kasu haue-tan ordainaraziko du zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga:

a) Zergaren esparru objektiboan sarturiko produktuen salmentak edo entregak, Nafarroako lurraldean dauden publikoarentzako txikizkako salmenta-establezimenduetan egindakoak, salbu eta lurralde horretatik kanpo horiek jaso eta kontsumitzeko behar diren instalazioak dituzten amaierako kontsumitzaileei eginiko hornitzeak. Horrekin parekatuz, Foru Komunitateak ordainaraziko du zerga lurralde komunetik Nafarroan jaso eta kontsumitzeko behar diren instalazioak dituzten amaierako kontsumitzaileei eginiko hornitzeak direla-eta.

b) Zergaren esparru objektiboan sarturiko produktuen inportazioak eta eskuraketak Europako Batasunaren barrenean, inportatzaileak edo esku-ratzaileak zuzenean kontsumitzeko direnean, Nafarroan dagoen eta bere kontsumorako den establezimendu batean.

2. Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga Estatuak lurralde komunean unean-unean ezartzen dituen funtsezko eta formazko arau berberak zuzenduko dute.

Aurrekoa gorabehera, Foru Komunitateak zergaren karga tasak ezarri ahalko ditu lurralde komunean unean-unean indarra duten mugen barrenean.

Halaber, Foru Komunitateak aitorten eta ordainketarako ereduak onartu ahalko ditu –horietan jaso beharko dira, gutxienez, lurralde komunekoetan jasotzen diren datuak– baita adierazi ere likidazioaldi bakoitzeko ordainketa-epeak, Estatu-koa administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izanen ez direnak.

4. SEKZIOA Aseguru primen gaineko zerga

37. artikulua. Aseguru primen gaineko zerga.

1. Nafarroako Foru Komunitateak ordainarazi-co du aseguru primen gaineko zerga, arriskuaren edo konpromisoaren kokapena, aseguru eta kapitalizazio eragiketetan, Nafarroako lurraldean dagoenean.

2. Ondorio horietarako, arriskuaren kokapena Nafarroako lurraldean dagoela ulertuko da, honako arau hauen arabera:

Lehena. Asegurua higiezin gainera denean, ondasunek lurralde horretan dutenean kokalekua. Arau hori bera aplikatuko da asegurua ondasun higiezin eta haien edukiaren gainera denean, azken hori aseguru poliza berberak estaltzen badu. Asegurua higiezin batean dauden ondasun higigarrien gainera bada soilik, merkataritza-igarotzakako ondasunak izan ezik, delako higiezinak lurralde horretan duenean kokalekua.

Aseguru berean estaltzen bada lurralde komunean eta Nafarroakoan dauden higiezin arriskua, kokapena horietako bakoitzean egiten da, batean eta bestean kokalekua duten higiezin balioaren arabera.

Bigarrena. Asegurua edozein motatako ibilgailu gainera bada, zein pertsona edo entitatearen izenean dagoen matrikulaturik, horrek zerga helbidea Nafarroan duenean.

Hirugarrena. Asegurua bidaia batean edo aseguruaren hartzailearen ohiko bizilekutik kanpo gertatzen diren arriskuen gainera baldin bada, eta haren iraupena lau hilabeteko edo gutxiago baldin bada, aseguruaren hartzaileak Nafarroako lurraldean izenpetzen badu kontratua.

Laugarrena. Aurreko arauetan berariaz aurrekusi gabeko kasu guztietan, aseguruaren hartzaileak Nafarroan duenean ohiko bizilekua edo, pertsona juridikoa izanez gero, kontratuaren xede den horren beraren helbide soziala edo sukurtsala lurralde horretan dagoenean.

3. Bizia gainera aseguruaren kasuan, konpromisoaren kokapena Nafarroan dagoela ulertuko da aseguruaren hartzaileak lurralde horretan duenean ohiko bizilekua, pertsona fisikoa izanez gero, edo pertsona juridikoa izanez gero, berriz, haren helbide soziala edo sukurtsal bat, kontratuak azken hori baldin badu xede.

4. Aurreko idatz-zatiei jarraiki kokapenerako arau berariazkorik ezean, aseguru eta kapitalizazio eragiketarako Nafarroako lurraldean eginak direla ulertuko da kontratu hartzailea den enpresaburuak edo profesionalak bere enpresa edo lanbide jarduerak betetzean hitzartzen dituztenean eragiketarako, eta bere jardura ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkor bat edo, horrelakorik ezean, helbidea, lurralde horretan duenean.

5. Zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezartzen dituen funtsezko eta formazko arau berberak aplikatuko ditu.

Halere, Foru Komunitateak aitorten eta ordainketarako ereduak onartu ahalko ditu, baita adierazi ere likidazioaldi bakoitzeko ordainketa-epaiek, Estatuak administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izanen ez direnak.

5. SEKZIOA

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gainera zerga

38. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraztea.

1. Foru Komunitateak kasu hauetan ordainaraziko du ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gainera zerga:

A) Kostubidezko ondare eskualdaketak.

1.a. Ondasun higiezin kostubidezko eskualdaketen eta errentamenduetan, bai eta horien gainera mota guztietako eskubideen kostubidezko lagapenean, baita bermearenean ere, ondasunek Nafarroan dutenean kokalekua.

Ondorio horietarako, ondasun higiezin eskualdaketat hartuko dira Balore merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 108. artikulua aipatzen dituen baloreen kostubidezko eskualdaketak.

2.a. Ondasun higigarrien, abereen eta kredituen kostubidezko eskualdaketen, bai eta horien gainera eskubideen kostubidezko lagapenean ere, eskuratzailerak, pertsona fisikoa denean, Nafarroan badu ohiko bizilekua eta, pertsona juridikoa edo nortasunik gabeko entea bada, Nafarroan badu zerga helbidea.

Aurreko lerrokadan ezarritakoarekin ere, akzioen, harpidetza eskubideen, obligazioen eta antzeko tituluen eta gainerako baloreen eskualdaketen, baita sozietateetako partaidetzenean ere, eragiketarako Nafarroan formalizatzen bada.

3.a. Ondasun higiezin gainera mota guztietako eskubideak, baita bermea ere, kostubidez eratzean, ondasun horiek Nafarroan badute kokalekua.

4.a. Ondasun higigarrien, abereen eta kredituen gainera mota guztietako eskubideak kostubidez eratzean, eskuratzailerak, pertsona fisikoa denean, Nafarroan badu ohiko bizilekua eta, pertsona juridikoa edo nortasunik gabeko entea bada, Nafarroan badu zerga helbidea.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa gorabehera, ondasun higigarrien hipoteka eta eskualdatzerik gabeko bahitura eratzean, bermea Nafarroako lurraldean inskribagarria denean.

5.a. Maileguak eratzean, mailegu hartzaileak, pertsona fisikoa denean, Nafarroan badu ohiko bizilekua eta, pertsona juridikoa edo nortasunik gabeko entea bada, Nafarroan badu zerga helbidea.

Nolanahi ere, berme errealarekiko maileguak direnean, hipotekaturiko ondasun higiezinak Nafarroan badute kokalekua, edo kasuan kasuko ondasun higigarrien hipotekak edo eskualdatzerik gabeko bahiturak inskribagarriak badira Nafarroan.

Mailegu baten bermea lurralde komunean eta foru lurraldean kokaturiko ondasun higiezinaren gaineko hipotekaren bidezkoa edo bi lurraldeetan inskribagarria den ondasun higigarrien hipotekaren edo eskualdatzerik gabeko bahituraren bidezkoa izanez gero, bi administrazioetan egiten du tributu-ordainketa, batzuei zein besteei ezartzen zaien erantzukizunaren proportzioan; eskrituran berariaz ez denean egiten zehaztaper hori, ondasunen balio egiaztatuen proportzioan.

6.a. Fidantzak, higiezinak ez direnen errentamenduak eta pentsioak eratzean, hartzekodun fidantza-hartzaileak, errenta-hartzaileak edo pentsiodunak, hurrenez hurren, pertsona fisikoa denean, Nafarroan badu ohiko bizilekua eta, pertsona juridikoa edo nortasunik gabeko entea bada, Nafarroan badu zerga helbidea.

7.a. Ondasunen emakida administratiboetan, horiek Nafarroan dutenean kokalekua, eta obren exekuzioetan edo zerbitzuen ustiapenetan, Nafarroan bete edo ematen direnean. Arau horiek berak izanen dira aplikatzekoak tributu-ordainketa administrazio emakidekin parekatuz egiten duten egintza eta negozio administratiboak direnean.

Nafarroako lurralde esparrua gainditzen duten ondasun ustiapenen emakidak direnean, zerga Nafarroako lurraldean hartzen duten hedaduraren proportzioan exijituko da.

Nafarroako lurralde esparrua gainditzen duten obra exekuziorako emakidak direnean, zerga Nafarroako lurraldean egin beharreko obretarako kalkulatzeko den zenbatekoaren proportzioan exijituko da.

Nafarroako lurralde esparrua gainditzen duten zerbitzu ustiapeneko emakidak direnean, zerga exijituko da bere populazioak eta azalerak ukituriko erkidego guztiekiko egiten duten portzentajeen batez besteko aritmetikoaren arabera.

Nafarroako lurralde esparrua gainditzen duten emakida mistoak direnean, zerga exijituko da emakidaren zatiari aurreko lerrokadetan jasotako irizpideak aplikatuz.

Nafarroako lurralde esparrua gainditzen duten administrazio emakidak direnean, zergaren ikuskapena Foru Komunitatearen esku egonen da entitate emakida-hartzaileak lurralde horretan badu kokalekua.

B) Sozietateen eragiketak:

Inguruabar hauetakoren bat tartean dela:

a) Entitateak Nafarroan izatea zerga helbidea.

b) Entitateak Nafarroan izatea helbide soziala, betiere zuzendaritzaren egoitza ez badago kokaturik Europako Batasuneko kide den estatu baten tributu administrazioaren lurralde esparruan edo, egonik ere, Estatu horrek ez badu antzeko zerga baten bidez kargatzen sozietatearen eragiketa.

c) Entitateak Nafarroan gauzatzea bere trafikoko eragiketak, betiere zuzendaritzaren egoitza eta helbide soziala ez badaude kokaturik Europako Batasuneko kide den estatu baten tributu administrazioaren lurralde esparruan edo, egonik ere, estatu horiek ez badute antzeko zerga baten bidez kargatzen sozietatearen eragiketa.

C) Egintza juridiko dokumentatuak:

1.a. Eskritura, akta eta testigantza notarialetan, Nafarroan baimendu, eman edo luzatzen direnean.

Aurreko lerrokadan xedatutakoarekin ere, egintza juridiko dokumentatuen kargaren kuota mailakatuari loturiko kasuetan, ondasun edo egintzen inskripzioa edo oharpena egin beharreko erregistroak Nafarroako lurraldean badu kokalekua.

Mailegu baten bermea lurralde komunean eta foru lurraldean kokaturiko ondasun higiezinaren gaineko hipotekaren bidezkoa edo bi lurraldeetan inskribagarria den ondasun higigarrien hipotekaren edo eskualdatzerik gabeko bahituraren bidezkoa izanez gero, bi administrazioetan egiten du tributu-ordainketa, batzuei zein besteei ezartzen zaien erantzukizunaren proportzioan; eskrituran berariaz ez denean egiten zehaztaper hori, ondasunen balio egiaztatuen proportzioan.

2.a. Kanbio letretan eta igorpenaren zeregina betetzen duten edo haien ordezkodun agiritan, Nafarroan igorri edo jaulkitzen direnean eta, atzerrian luzatuak badira, lehen edukitzaileak Nafarroan duenean ohiko bizilekua edo zerga helbidea, pertsona fisikoa den edo pertsona juridikoa den edo nortasun juridikorik gabeko entea den. Nafarroako Foru Komunitateak aipatutako zergagaiei ezarriko dien tributu-ordainketa lurralde komunekoaren berdina izanen da.

3.a. Gordailu-ordezkgiri edo -egiaztagiri eskualdagarrietan, horiek jaulki edo luzatzen dituen entitateak Nafarroan badu zerga helbidea.

4.a. Seriean jaulkitzen diren eta besteren kapitalen ordezkaritza diren zor-agirietan, bonoetan, obligazioetan eta antzeko beste tituluetan, horien truke kontraprestazio bat –jaulkitzeagatik ordaindutako zenbatekoaren eta muga egunean itzultzea hitzartutako zenbatekoaren arteko aldea– ordaintzen bada, Nafarroan jaulkitzen badira.

5.a. Aurreneurriko idatz-oharretan, Nafarroan dauden erregistro publikoetan eginak badira.

Idatz-ohar bakar batek Nafarroan eta lurralde komunean dauden ondasunetan baldin badu eragina, hura agindu duen aginteak non duen jurisdikzioa, horko administrazioari ordainduko zaio.

2. Aurreko 1. idatz-zatiko A) letraren 2. zenbakiko bigarren lerroak aipatzen duen baloreen eskualdaketari eta sozietateen eragiketei ezarriko zaien tributu-ordainketa lurralde komunekoaren berdina izanen da.

39. artikulua. Sozietateen bidezko elusio fiskala.

Sozietateen bidezko elusio fiskalaren gaineko arauak aplikatzeko, likidazioak egiteko eskumena Estatuko administrazioarena izanen da ondasun higiezinak araubide komuneko lurraldean kokaturik daudenean, eta Foru Komunitatearena Nafarroako lurraldean daudenean.

Sozietateen ekarpenetan edo aktiboetan sarturik baldin badaude bi lurraldeetan dauden higiezinak, administrazio bakoitzak kasuan kasuko likidazioa eginen du, bere lurraldean dauden higiezinaren balioaren arabera.

6. SEKZIOA

Jokoaren gaineko tributuak

40. artikulua. Tributuen ordainarazpena eta aplikatzekoa den araudia.

Bat. Foru Komunitateak ordainaraziko du zori, enbete edo ausa jokoen gaineko tasa zergagaia Nafarroan egiten denean.

Bi. Foru Komunitateak ordainaraziko du zozketa, tonbola, apostu eta konbinazio aleatorioen gaineko zerga tasa horien baimena Nafarroan eman behar denean.

Hiru. Jokoaren gaineko tributuetan, baimena Nafarroan eman behar denean, Foru Komunitateak aplikatuko duen araudia izanen da Estatuak unean-unean zergagaiaz eta subjektu pasiboaz ezartzen duena.

IV. KAPITULUA

Tasak

41. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraztea.

Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko ditu bere jabari publikoaren erabilera edo aprobeztamendu berezia dela-eta, zuzenbide publiko araubidean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak gauzatzeko exijitu beharreko tasak.

V. KAPITULUA

Kudeaketa eta prozedura arauak

42. artikulua. Zerga delitua.

Arau-hausteak Kode Penalean araututako ogasun publikoaren kontrako delituak izan daitezkeenean, administrazio jardulearen organoak erruduntasun testigantza utziko du jurisdikzio eskudunaren esku, eta ez du aurrera eramanen administrazio prozedura aginte judizialak epai irmoa eman, jarduketak largetsi edo artxibatu edo fiskalak espedientea itzuli arte.

43. artikulua. Desadostasunak eta zerga helbidearen aldaketa.

1. Lurralde komunean edo foru lurraldean bizi diren pertsona fisikoek, ohiko bizilekua batetik bestera aldatuz gero, bizileku berriaren arabera beteko dituzte bere tributuen arloko betebeharrak, bizilekuak lotune zeregina betetzen duenean.

Horrez gain, hurrengo idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera, bizileku aldaketarik ez dela izan ulertuz gero, pertsona fisikoek kasuan kasuko aitorten osagarriak aurkeztu beharko dituzte, berandutzako interesak barne.

2. Ez dute ondoriorik izanen helburu nagusia tributu-ordainketa txikiagoa lortzea duten bizileku aldaketek.

Bizileku berriari gutxienez hiru urtez jarraian eusten ez bazaio, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta ondarearen gaineko zergan aldaketarik ez dela izan ulertuko da honako inguruabar hauek tartean direlarik: lehenik, bizileku aldaketa egiten den urtean edo hurrengoan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergagaia aldaketaren aurreko urtean baino 100eko 50 handiagoa, gutxienez, izatea; bigarrenik, egoera hori gertatzen den urtean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ordaindutakoa aldaketaren aurreko bizilekua zegoen lurraldean aplikatzekoa zen araudiaren arabera zegoena baino txikiagoa izatea; hirugarrenik, ohiko bizilekua berriz edukitzea lurralde horretan.

3. Kontrakoa dioen frogarik izan ezean, pertsona juridikoen zerga helbidean aldaketarik ez dela izan ulertuko da aldaketaren aurreko edo ondoko ekitaldian edo jarduerarik gabe bilakatzen direnean edo jarduerari uzten diotenean.

4. Sozietateen gaineko subjektu pasiboak eta entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrak beharturik egonen dira bi administrazioei jakinaraztera zerga helbidearen aldaketa baldin eta zerga exijitzeko eskumenean aldaketak eragin baditzaleten.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, jakinarazpena zergaren aitortzea aurkeztean egiten dela ulertuko da.

5. Zergadunaren helbide aldaketa ukituriko administrazioetako edozeinek sustatu ahalko du. Administrazio sustatzaileak besteari igorriko dio proposamena, beharrezkoa diren aurrekariekin, bi hilabetez bere iritzia eman dezan helbide aldaketaz eta ondorioak zein egunetara atzera eraman behar diren. Administrazio horrek proposamena berretsiz erantzuten badu, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Adostasunik ez badago, berriz, prozedura aurrera eraman ahalko da artikuluko honen hurrengo idatz-zatian aurreikusitako moduan.

6. Zergadunen helbideratzeen inguruan administrazioen artean gerta daitezkeen desadostasunak hitzarmen ekonomiko honen 51. artikuluko aurreikusitako eta arautzen duen Arbitraje Batzordeak ebaztuko ditu, administrazioei entzun ondoren.

44. artikulua. Finantza entitateen lankidetzaren tributuen kudeaketan.

1. Nafarroako Foru Komunitateak beteko du tributu ikerketa, finantza entitateen eta banku edo kreditu trafikoen aritzen diren pertsona fisiko edo juridiko guztien kontu eta eragiketa aktibo zein pasiboen gainekoa, Foru Komunitatearen eskumenekoak diren tributuen ordainarazteari begira.

2. Informazioa lortzeko jarduketak, aurreko idatz-zatian aipatzen direnak, Nafarroako lurraldeetik kanpo gauzatu behar direnean, hurrengo artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

45. artikulua. Tributu ikuskaritzaren jarduketak.

1. Hitzarmen honek Nafarroako Foru Komunitatearen esku utzitako eskumenen esparruan, lurralde horretatik kanpo bete behar diren egiaztapen eta ikerketa jarduketak Estatuko tributu ikuskaritzak gauzatzeko ditu edo lurraldeari begiratuta eskumena duten autonomia erkidegoetakoak,

horiei laga zaizkien tributuen ordainaraztean, Foru Komunitateko organo eskudunak hala eskatuta.

2. Estatuko edo Foru Komunitateko tributu ikuskaritzak, bere egiaztapen edo ikerketa jarduketan kariak, beste administrazioaren tributuetan eragina duten egitateen berri izanez gero, hari jakinaraziko diote, ezarriko den moduan.

46. artikulua. Informazioa emateko betekizuna.

1. Eginiko atxikipenen eta konturako dirusarreen laburpenak horietan sartu beharreko atxikipenak eta konturako dirusarrerak ordainarazteko eskumena duen administrazioan aurkeztu beharko dira, kasuan kasuko araudiari jarraiki.

Araudiaren arabera atxikipenen eta konturako dirusarreen urteko laburpenak aurkezteko betekizuna duten baloreen errenten kobrantza bildu edo kudeatzen duten entitateek entitate horien gaineko egiaztapen eta ikerketarako eskumena duen administrazioan egin beharko dute aurkezpena, kasuan kasuko araudiari jarraiki.

Estatuak eta Foru Komunitateak exijitu dezakeen sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak diren entitateek hitzarmen ekonomiko honen 10.1.f) eta 12.1 artikuluek aipatzen dituzten etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako dirusarreen urteko laburpenak aurkeztu beharko dituzte, ordainarazpenerako eskumena duten administrazioetako bakoitzak aitortzen aurkezteko tokia, modua eta epeaz ezartzen dituen arauak jarraiki.

2. Legeak eskatzen dituen tributuen arloko informazio orokorra eman beharrik betetzeko xedea duten aitortzen Estatuko edo Foru Komunitateko administrazioan aurkeztu beharko dira, zein bere araudiaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

a) Enpresa eta lanbide jardueretan aritzen diren tributudunen kasuan, jardura horien gaineko ikuskapena egiteko eskumena duen administrazioan.

b) Enpresa eta lanbide jardueretan aritzen ez diren tributudunen kasuan, zerga helbidea non duten, lurralde komunean edo foru lurraldean.

3. Erroldarako aitortzen, horiek egiteko betekizuna duen pertsona edo entitatearen zerga helbidea dagoen administrazioak aurkeztu beharko dira, kasuan kasuko araudiari jarraiki, bai eta hitzarmen ekonomiko honetan aurreikusitako arauen arabera pertsona edo entitate horrek aitortzen haurtaketaren bat aurkeztu behar duen administrazioan ere:

- a) Atxikipen eta konturako dirusarreraren aitorpena.
- b) Sozietateen gaineko zergaren aitorpen-likidazioa.
- c) Balio erantsiaren gaineko aitorpen-likidazioa.
- d) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitorpena.

47. artikulua. Enpresen bat-egiteak eta zatitzeak.

Enpresen bat-egite edo zatitze eragiketetan, izan daitezkeen tributu-mozkinak bi administrazioek aitortu behar dituztenetan, Nafarroak aplikatuko duen araudia izanen da lurralde komunean unean-unean indarra duenaren berdina; espediente administratiboak haietako bakoitzaren aurrean tramitatuko dira.

VI. KAPITULUA Toki ogasunak

48. artikulua. Printzipio orokorra.

Toki ogasunen arloan, Foru Komunitatearen ahalmenak eta eskumenak dira 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1925eko azaroaren 4ko Lege-dekretu itunduan eta gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoaren babesean bere gain dituenak.

49. artikulua. Toki tributuak.

Aurreko artikuluan xedatua ukatu gabe, Nafarroako toki ogasunen esku dago honako tributu hauen ordainarazpena:

- a) Nafarroan dauden ondasun higiezinak gainekoak.
- b) Nafarroan betetzen diren enpresa, lanbide eta arte jardueretan aritzea kargatzen dutena, salbu eta zerga ordaintzeak nazioko lurralde osoan aritzeko ahalmena ematen duen kasuetan, hala denean, ordainarazpena eginen duena pertsona fisikoaren ohiko bizilekua edo pertsona juridikoaren edo nortasunik gabeko entearen zerga helbidea dagoen administrazioa izanen baita.
- c) Bide publikoetan zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titularitatea kargatzen dutenak, ibilgailuaren zirkulazio baimena agerian den helbidea Nafarroakoa denean.
- d) Nafarroan egiten diren obrak, eraikinak eta instalazioak gauzatzearen gainekoak, horietarako lizentzia eskuratzea eskatu daitekeenean.

50. artikulua. Nafarroako toki entitateen parte hartzea Estatuko tributueta.

Nafarroako toki entitateek parte hartuko dute Estatuaren tributu bidezko dirusarreretan, hitzarmen honen arauen arabera ordainarazpena Foru Komunitatearen eskumena ez den tributuei dagoen zatian.

VII. KAPITULUA Arbitraje Batzordea

51. artikulua. Arbitraje Batzordea.

1. Arbitraje batzorde bat eratuko da, eta eginkizun hauek izanen ditu esleiturik:

a) Banakako tributu harremanen inguruko kasu zehatzetan hitzarmen hau ulertu edo aplikatzearen ondorioz, administrazio interesatuen artean sortu daitezkeen gatazkez arduratzea.

b) Ebaztea Estatuko administrazioaren eta Foru Komunitatekoaren artean edo Foru Komunitatekoaren eta autonomia erkidegoko batekoaren artean suertatzen diren gatazkek, Nafarroako Foru Komunitateak ordainarazi beharreko tributuen lotuneen aplikazioak eta sozietateen gaineko zergan edo balio erantsiaren gaineko zergan baterako tributu-ordainketaren kasuetan, administrazio bakoitzari dagokion proportzioa ezartzeak eragindakoak.

c) Zergadunen helbideratzea dela-eta gerta daitezkeen desadostasunak ebaztea.

2. Arbitraje Batzordeak hiru kide izanen ditu, Ogasun Ministerioak eta Nafarroako Ekonomia eta Ogasun kontseilariak izendatuak.

Arbitroak sei urtetarako izendatuko dira. Kargu bat hutsik geratuz gero, berria izendatzeko prozedura bera erabiliko da. Ordezkatuak bere agintaldia betetzeko falta zuen denborarako izendatuko da kide berria.

Arbitraje Batzordeko kideak tributu edo ogasun arloan ospea duten adituen artean izendatuko dira.

3. Arbitraje Batzordeak zuzenbidean oinarriturik ebatziko dituzte espedientearen afera guztiak, aldeek edo interesatuek plazaratu dituztenak eta ez dituztenak, betearazpen formulak barne.

Arbitraje Batzorde horren erabakiak, betearaztekoak direla ukatu gabe, administrazioarekiko auzibidean baizik ez dira errekurritu ahal izanen, eta Auzitegi Goreneko dagokion salan.

4. Eskumen gatazka gertatuz gero, ukitutako administrazioek interesatuei jakinaraziko diete, eta horrek preskripzioaren etena ekarriko du; adminis-

trazieak ez dute hortik aurrera ezein jarduketarik beteko gatazka horren inguruan.

Gatazkak erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez ebatziko dira, eta horretan entea emanen zaie interesatuei.

5. Eskumen gatazka gertatuz gero, harik eta ebazten den arte, ezbaiaren gaia diren zergadunei ordura arte kargatu dien administrazioak hala egiten segituko du, baina horrek ez ditu baztertzen administrazioen artean egin beharreko tributu zuzenketak eta konpentsazioak, tributuen gaineko foru berria betetzen hasteko egunera atzera eramanez, Arbitraje Batzordeak erabakitakoaren arabera.

II. TITULUA Ekarpen ekonomikoa

I. KAPITULUA Ekarpena zehazteko metodoa

52. artikulua. Ekarpenaren kontzeptua.

Nafarroak Estatuari eman beharrekoa urteko ekarpen bat izanen da, Foru Komunitateak estatuaren zama orokorren finantziazioan izan beharreko parte hartzea.

53. artikulua. Ekarpena zehaztea.

Urteko ekarpena zehazteko, egozte indizea aplikatuko zaio Foru Komunitateak bere gain hartu ez dituen Estatuaren zamek eta kasuan kasuko konpentsazioek egiten duten zenbateko osoari, hurren artikuluetan ezartzen denari jarraiki.

54. artikulua. Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zamak.

1. Foru Komunitateak bere gain hartu ez dituen Estatuaren zamak dira betetzen ez dituen eskumenei dagozkien guztiak.

Zama horien zenbatekoa zehazteko, Foru Komunitateak –bai zerbitzuak eskualdatzeari buruzko errege dekretuen bidez bai 1841eko abuztuaren 16ko lege itunduan eta gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoaz baliatuz– betetzen dituen eskumenekin loturiko kredituek, estatu osoan, egiten duten zenbatekoa, bere osotara, kenduko zaio Estatuako gastuen aurrekontuaren zenbateko osoari.

2. Nolanahi ere, Foru Komunitateak bere gain hartu ez dituen zamak, besteak beste, hauexek izanen dira:

a) Konstituzioaren 158.2 artikulua aipatzen dituen lurraldeen arteko konpentsazio funtsei emaniko zuzkidurak.

b) Estatuako aurrekontu orokorretan ente publiko alde ageri diren transferentziak edo dirulaguntzak, horien eskumenak Foru Komunitateak betetzen ez baditu.

c) Estatuako zor guztien interesak eta amortizazio kuotak.

55. artikulua. Ekarpena bere osotara.

Hitzarmen ekonomiko honen 57. artikuluan aipatzen den egozte indizea Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zamei aplikatetik ateratako kopurua, horixe izanen da Nafarroaren ekarpen osoa.

56. artikulua. Konpentsazioak.

1. Foru Komunitatearen osotarako ekarpenetik kopuru hauek kendu beharko dira, konpentsazio gisa:

a) Hitzartu gabeko tributuen zati egozgarria.

b) Estatuaren tributuz kanpoko dirusarreraren zati egozgarria.

c) Estatuako aurrekontu orokorren defizitaren zati egozgarria.

d) Hitzarmen ekonomiko honen 10.3 eta 12.3 artikuluek aipatutako kopuruak.

2. Aurreko 1. idatz-zatiko a), b) eta c) letrek aipatzen dituzten kopuruak zehazteko, hurrengo artikuluan ezarritako egozte indizea aplikatuko da.

57. artikulua. Egozte indizea.

Aurreko 53, 55 eta 56. artikuluek aipatzen duten egozte indizea, funtsean, Nafarroako errenta erlatiboan oinarriturik zehaztuko da.

58. artikulua. Ekarpen likidoa.

Hitzarmen ekonomiko honen 56. artikuluan araututako konpentsazioak egin ondoren ateratzen den kopurua, horixe da Nafarroaren ekarpen likidoa.

II. KAPITULUA Ekarpena zenbatetsi, gaurkotu eta aldizkatzeko prozedura

59. artikulua. Ekarpenaren aldizkatzea eta gaurkotzea.

1. Ekarpena zehazteko metodoa, aurreko kapituluaren ezarritakoa, bost urtetik behin aplikatuko da, bi administrazioek hartu beharreko erabakiaren bidez, hitzarmen honen indarraldiaren lehen-dabiziko urtetik hasita. Erabaki horrek zehaztuko du bost urtekoaren oinarri-urteari dagokion ekarpen likidoaren zenbatekoa.

2. Bost urtekoaren gainerako urteetako bakoit-zerako, ekarpen likidoa zehazteko, ondoko 60. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako gaurkotze indizea aplikatuko zaio oinarri-urtearen ekarpen likidoari.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa ukatu gabe, bost urtekoaren gainerako urteetako bakoit-zerako behin-behineko ekarpen likido bat zehaztuko da, oinarri-urtearen ekarpen likidoari aplikatuz ondoko 60. artikulua 2. idatz-zatian ezarritako behin-behineko gaurkotze-indizea.

4. Oinarri-urtearen ekarpen likidoa eta bost urtekoaren gainerako urteetako behin-behineko ekarpen likidoak Estatuko aurrekontu orokorretan eta Nafarroako Foru Komunitatekoetan, kasuan kasuko ekitaldikoetan, sartuko dira, behar diren ondorioak izateko.

60. artikulua. Gaurkotze indizea.

1. Aurreko 59. artikulua aipatzen duen gaurkotze indizea hauxe izanen da: hitzartutako tributu bidez, autonomia erkidegoen esku utzi daitezkeenak kenduta, Estatuak, ekarpen likidoaren ekitaldian lortutako dirubilketa likidoaren eta tributu kontzeptu berdinegatik bost urtekoaren oinarri-urtean lortutako dirubilketa likidoaren arteko zatidura.

2. Aurreko 59. artikulua 3. idatz-zatian aipatzen den behin-behineko gaurkotze indizea zatidura hauxe izanen da: behin-behineko ekarpen likidoaren ekitaldian, Estatuko dirusarreraren aurrekontuko I eta II. kapituluetan, hitzartutako tributu bidezko dirusarrerei dagokionez –autonomia erkidegoen esku utzi daitezkeenak kenduta– ageri den aurreikuspenaren eta tributu kontzeptu berdinegatik bost urtekoaren oinarri-urtean aurreikusitako dirusarreraren arteko zatidura.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatian aipatzen den dirubilketa likidoa izanen da Estatuko administrazioaren kontu-hartzaitza orokorrak egiaztatzen duena, eta halakotzat hartuko da egiaztapenaren urtean lortutakoa, edozein delarik ere sortzapeneko urtea.

61. artikulua. Foru Komunitateak bere gain harturiko eskumenen aldaketaren ondorioak.

1. Bost urtekoaren urteetako edozeinetan Estatuak Nafarroari zerbitzurik eskualdatuz gero, eta horien urteko kostua, Estatuko aurrekontu orokorretan jasoa, oinarri-urteko ekarpen likidoa zehazteko ondorioetarako, Foru Komunitateak bere gain harturik ez duen zama gisa kontatu bada, urteko kostu hori murriztuko da, Nafarroak zerbitzu horiek bere gain hartzen dituen urtearen zatiari dagokion proportzioan eta, beraz, ekarpen

likidoari kenduko zaio hitzarmen ekonomiko honen 57. artikuluan aurreikusitako egozte-indizea aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

Proporziozko murrizketa horrek kontuan hartu beharko du gastu arrunten aldizkotasun erreala eta inbertsioen gauzatze maila egiazkoa.

2. Nafarroak utziz gero betetzeari oinarri-urteko ekarpen likidoa zehazteko ondorioetarako bere gain hartutakotzat kontatu diren eskumenak, kasuan kasuko ekitaldiko ekarpen likidoari gehituko zaio aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

3. Hurrengo ekitaldietarako, gaurkotu beharreko oinarri-urteko ekarpen likidoa hauxe izanen da: hitzarmen ekonomiko honen 57. artikuluan araututako egozte-indizea eskualdatutako edo betetzeari utzitako zerbitzuak edo eskumenak estatuan duen urteko kostuari aplikatuz ateratzen den zenbatekoa, aurreko 60. artikuluan aurreikusitako indizea aplikatu ondoren, hasieran finkaturiko ekarpen likidoari kendu edo gehitzetik, dagokiona, ateratzen dena.

4. Estatuak eskualdatutako zerbitzuak Gizarte Segurantzaren sisteman sarturik egonez gero, ez da aplikatzekoa izanen aurreko 1 eta 3. idatz-zatietan ezarritakoa eta eskualdaketei buruzko kasuan kasuko errege dekretuetan ezarritakoak aginduko du eskualdaketak hura betetzen hasten den urteko ekarpen likidoan eta bost urtekoaren oinarri-urtekoan duen eraginaren ondorioetarako.

62. artikulua. Behin betiko likidazioa.

1. Behin-behineko ekarpen likidoak behin betiko likidatzeko hitzarmen ekonomiko honen 60. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako gaurkotze indizea aplikatuko da.

2. Behin betiko likidazioa haren xede den behin-behineko ekarpen likidoaren hurrengo ekitaldiko martxoan egingen da, eta azken horrekiko gertatzen diren aldeak hilabete horretan, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat, egin beharreko ordainketan erregularizatuko dira.

63. artikulua. Behin-behineko ekarpen likidoaren ordainketa

1. Nafarroako Foru Komunitateak ekitaldi bakoitzean ordaindu beharreko kopurua Estatuko ogasun publikoari ordainduko zaio zenbateko bereko lau ordainketatan, kasuan kasuko ekitaldi-ko martxoan, ekainean, irailean eta abenduan.

2. Behin-behineko ekarpen likidazioaren ordainketarako eperen bat beterik, horren zenbatekoa zehazterik izan ez bada, ordainketa egingen

da finkaturiko behin-behineko azken ekarpen likidoaren arabera.

Horrela eginiko ordainketak "konturako" ordainketak izanen dira, eta administrazio baten edo bestearen alde izan daitezkeen aldean likidazioa eta ordainketa kasuan kasuko ekitaldiari dagokion ekarpen likidoa zein den jakin bezain laster egin beharko dira.

III. KAPITULUA

Tributuen dirubilketaren doitzak

64. artikulua. Doitzea, zuzeneko zergak direla-eta.

Zuzeneko zerga hitzartuak direla-eta Nafarroari eta estatuko gainerakoei esleitu ahal zaizkien dirusarreraren kalkulua hobetearren, bi administrazioek horien doitzea eginen dute, adosturik.

65. artikulua. Doitzea, zeharkako zergak direla-eta.

1. Nafarroak balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta egiten duen dirubilketa errealari adierazpide matematiko honen emaitza gehituko zaio:

$$\text{Doitzea} = c \text{ RR}_{AD} + (c - d) H$$

Hauek horrela direla:

$$H = \frac{\text{RR}_N}{d} \text{ baldin eta } \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \frac{d'}{1 - d'}$$

$$H = \frac{\text{RR}_{TC}}{d''} \text{ baldin eta } \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \frac{d'}{1 - d'}$$

RR_{TC} = Lurralde komunean balio erantsiaren gaineko zergak duen urteko dirubilketa erreal, Tributu Administrazioaren Estatuko Agentziaren ordezkartzek eskuratutakoa.

RR_N = Nafarroan BEZak duen urteko dirubilketa erreal

RR_{AD} = Inportazioen urteko dirubilketa erreal.

$$c = \frac{\text{Egoitza erresidentzia Nafarroan dutenen kontsumoa}}{\text{Egoitza erresidentzia estatuan dutenen kontsumoa (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

$$d = \frac{v - f - e + i}{V - F - E + I}$$

v = Nafarroako balio erantsi gordina, faktoreen kostuaren gainean.

V = Id., Estatuko (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

f = Nafarroako kapital-erakuntza gordina.

F = Id., Estatuko (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

e = Nafarroako esportazioak.

E = Id., Estatuko (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

i = Nafarroako inportazioak, Europako Batasunetik heldu direnak.

I = Id., Estatuko (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta), Europako Batasunetik heldu direnak.

$$d' = \frac{v - f - e + i}{V' - F' - E' + I'}$$

V' = Estatuko balio erantsi gordina (Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

F' = Estatuko kapital-erakuntza gordina (Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

E' = Estatuko esportazioak (Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

I' = Estatuko inportazioak (Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

$$d'' = \frac{V'' - F'' - E'' + I''}{V - F - E + I}$$

V'' = Estatuko balio erantsi gordina (Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

F'' = Estatuko kapital-erakuntza gordina (Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

E'' = Estatuaren esportazioak (Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

I'' = Estatuaren inportazioak (Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta), Europako Batasunetik heldu direnak.

2. Nafarroak fabrikazioaren gaineko zerga berezian, eta alkoholaren eta alcoholduen edariaren, tarteko produktuen, garagardoaren, hidrokarburoen eta tabako gaien gaineko zergetan egiten duen dirubilketa errealari honako adierazpide matematikoen emaitza gehituko zaio:

a) Alkohol, edari alkoholdun eta tarteko produktuen gainekoa:

$$\text{Doitzea} = a \text{ RR}_{AD} + (a - b) H$$

Hauek horrela direla:

$$H = \frac{\text{RR}_N}{b} \text{ baldin eta } \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \frac{b}{1 - b}$$

$$H = \frac{\text{RR}_{TC}}{1 - b} \text{ baldin eta } \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \frac{b}{1 - b}$$

RR_N = Nafarroan alkohol, edari alkoholdun eta tarteko produktuen fabrikazioaren gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

RR_{TC} = Lurralde komunean, Euskal Autonomia Erkidegoa barne, alkohol, edari alkoholdun eta tarteko produktuen fabrikazioaren gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

RR_{AD} = Inportazioak direla-eta, alkohol, edari alkoholdun eta tarteko produktuen fabrikazioaren gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

$$a = \frac{\text{Egoitza erresidentzia Nafarroan dutenen kontsumoa}}{\text{Egoitza erresidentzia estatuan dutenen kontsumoa (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

$$b = \frac{\text{Nafarroaren dirubilketako ahalmena}}{\text{Estatuaren dirubilketako ahalmena (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

b) Garagardoa:

$$\text{Doitzea} = a' \text{ RR}_{AD} + (a' - b') H$$

Hauek horrela direla:

$$H = \frac{\text{RR}_N}{b'} \text{ baldin eta } \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \frac{b'}{1 - b'}$$

$$H = \frac{\text{RR}_{TC}}{1 - b'} \text{ baldin eta } \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \frac{b'}{1 - b'}$$

RR_N = Nafarroan, garagardoaren fabrikazioaren gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

RR_{TC} = Lurralde komunean, Euskal Autonomia Erkidegoa barne, garagardoaren fabrikazioaren gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

RR_{AD} = Inportazioak direla-eta, garagardoaren fabrikazioaren gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

$$a' = \frac{\text{Egoitza erresidentzia Nafarroan dutenen kontsumoa}}{\text{Egoitza erresidentzia estatuan dutenen kontsumoa (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

$$b' = \frac{\text{Nafarroaren dirubilketako ahalmena}}{\text{Estatuaren dirubilketako ahalmena (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

c) Hidrokarburoak:

$$\text{Doitzea} = a'' \text{ RR}_{AD} + (a'' - b'') H$$

Hauek horrela direla:

$$H = \frac{\text{RR}_N}{b''} \text{ baldin eta } \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \frac{b''}{1 - b''}$$

$$H = \frac{\text{RR}_{TC}}{1 - b''} \text{ baldin eta } \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \frac{b''}{1 - b''}$$

RR_N = Nafarroan, hidrokarburoen gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

RR_{TC} = Lurralde komunean, Euskal Autonomia Erkidegoa barne, hidrokarburoen gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

RR_{AD} = Inportazioak direla-eta, hidrokarburoen gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

$$a'' = \frac{\text{Egoitza erresidentzia Nafarroan dutenen kontsumoa}}{\text{Egoitza erresidentzia estatuan dutenen kontsumoa (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

$$b'' = \frac{\text{Nafarroaren dirubilketako ahalmena}}{\text{Estatuaren dirubilketako ahalmena (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

d) Tabako gaiak:

$$\text{Doitzea} = a''' \text{ RR}_{TC} - [(1 - a''') \text{ RR}_N]$$

Hauek horrela direla:

RR_N = Nafarroan, tabako gaien gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

RR_{TC} = Lurralde komunean, Euskal Autonomia Erkidegoa barne, tabako gaien gaineko zerga bereziak duen urteko dirubilketa erreala.

$$a''' = \frac{\text{Nafarroan dauden tabako eta tinbre saltokiak hornitzeko izan diren tabako gaiak}}{\text{Zerga aplikatzekoa den lurraldean dauden tabako eta tinbre saltokiak hornitzeko izan diren tabako gaiak}}$$

66. artikulua. Doitzeen zenbatespena eta likidazioa

1. Aurreko 64 eta 65. artikuluetan aurreikusiriko doitzeen zenbatespena eta likidazioa egiteko bigarren kapituluaren ezarritako prozeduraren antzeko bat erabiliko da, bi administrazioek adosturik.

2. 65. artikulua aipatzen dituen zergetan Nafarroak lortutako dirubilketa erreala eta dirubilketarako ahalmenaren indizea –zerga berezien kasuan– eta doitze-indizea –balio erantsiaren gaineko zergaren kasuan– oso bestelakoak badira, doitu eginen dira, tarte diferentzialerako aukera utzirik, aipatutako desbideraketak gertatzen diren urteko doitzeak egin ahal izateko.

III. TITULUA

Koordinazio Batzordea

67. artikulua. Koordinazio Batzordea.

1. Koordinazio Batzorde bat eratuko da, kide hauekin:

- a) Estatuko administrazioaren sei ordezkari.
 - b) Foru Komunitatearen sei ordezkari, Nafarroako Gobernuak izendatutakoak.
2. Koordinazio Batzordearen eskumenak hauek izanen dira:
- a) Foru araubidea eta estatuko zerga esparrua egituretan eta eginkizunetan egokiro uztartzeko bidezko zat jotzen diren azterlanak egitea.
 - b) Administrazio eskudunei jarduteko irizpide uniformeak, planak eta informatika programak ematea.
 - c) Estatuko administrazioaren eta Foru Komunitatekoaren artean ikuskapenaren arloan suertatzen diren kasuak edo aferak aztertzea.
 - d) Ogasun Ministerioak, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eta Arbitraje Batzordeak eskatutako txostenak egitea.

e) Tributuetan ondorioak izan beharreko zenbatespenen arazoak aztertzea.

f) Tributuen arloko araudia hitzarmen ekonomikora egokiturik dagoen ebaluatzea, onetsi aurretik.

Horretarako, arauzko xedapenen proiektuak elkarri trukatzearen ondorioz, horietan jasotako proiektuen inguruko oharra egiten badira, bi administrazioetako edozeinek eskatu ahalko du, idatziz eta arrazoiturik, batzordea biltzeko deialdia egitea, tributuen gaineko araudiaren edukiaz egon

daitezkeen desadostasunak bideratzeko akordio bat lortzeko helburuarekin.

g) Hitzarmen ekonomikoan dauden lotuneen aplikazioaz plazaratzen diren kontsultak ebaztea. Kontsulta horiek jasotzen dituen administrazioak beste administrazioa igorriko ditu, azter ditzan, erabaki proposamenarekin batera, jaso eta bi hilabeteko epean. Hurrengo bi hilabeteetan erabaki proposamenaren inguruko oharrik egin ezean, onetsirik dagoela ulertuko da. Oharrak egonez gero, eta beste administrazioak ez baditu onartzen hamabost eguneko epean, Koordinazio Batzordea biltzeko deialdia egingen da; batzordean akordiorik ez badago, Arbitraje Batzordeari igorriko zaio afera.

h) 59. artikulua aipatzen duen ekarpen ekonomikoa zehaztea, bai oinarri-urtekoa bai bost urteko bakoitzaren gainerako urteetako, bi administrazioei igortzeko, behar den erabakia har dezaten.

i) Bigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen kopuruaren gaurkotzea ezartzea, bi administrazioek onets dezaten.

j) Hitzarmen ekonomiko honen 65 eta 66. artikuluetan araututako zeharkako zergak direla-eta egin beharreko doitzeen zenbatespenerako eta likidaziorako metodoa ezartzea.

k) Nafarroako Foru Komunitateak poliziaren arloan betetzen dituen eskumenen kostuaren urteko balorazioa, behin-behinekoa eta behin betikoa, zenbatetea.

l) Aurrekontuko egonkortasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazio konpromisoak erabakitzea.

Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateak aurrekontuko egonkortasunaren arloan izan beharreko helburua zehaztuko du, Gobernuak aurrekontu egonkortasunaren arloko helburua Aurrekontu egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan ezarritako baldintzetan onesten duenetik hilabeteko epean; ondoren Autonomia Erkidegoetako Zerga eta Finantzen arloko Politikaren Kontseiluari igorriko dio helburua, haren berri izan dezan.

Urtero, ekainaren 1a baino lehen, aurreko ekitaldian aurrekontu egonkortasunaren arloan ezarritako helburua aztertuko du.

Abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritako epeetan, Nafarroako Foru Komunitateak, gerta daitezkeen desoreka egoezuzentzeko, prestatzen dituen saneamendu planetan jasotako neurriak egokiak diren egiaztatu du.

3. Koordinazio Batzordea urtean bi aldiz, gutxienez, bilduko da, martxoan eta irailean, bai eta ordezkaturiko administrazioetakoren batek hala eskatzen duenean ere.

4. Koordinazio Batzordeak azpibatzen sortu ahalko ditu, artikuluko honen 2. idatz-zatian a), b), c), d), f) eta g) letretan ageri diren eskumenak eskuordetzeko. Azpibatzen horiek administrazioetakoa hiruna kide izanen dituzte, eta horiek hartutako erabakiak eraginkorak izanen dira hartzen diren une berean, ondoren Koordinazio Batzordeak berretsiko baditu ere.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Onetsirik dago Nafarroaren behin betiko ekarpen likidoa 2000. ekitaldian, hau da, 2000tik 2004ra bitarteko bost urtekoaren oinarri-urtean, eta hitzarmen ekonomiko honen I. eranskinean ageri da.

Ekarpen likido hori Foru Komunitateak 2000ko abenduaren 31n bere gain harturiko eskumenean egoera errealean arabera ezarri da.

Bigarrena. 19 eta 33. artikuluek aipatzen duten kopurua, sei milioi eurokoa, bost urtetik behin gaurkotuko da, gutxienez, hitzarmen ekonomiko honen 67. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Hirugarrena. Estatuko tributuen arloko antolamendu juridikoan funtsezko erreforma gertatuz gero, bi administrazioek, elkar adosturik, hitzarmen hau egokituko dute hitzarturiko tributuek izandako aldaketetara eta, beharrezkoa izanez gero, kasuan kasuko bost urtekoaren oinarri-urteko ekarpen likidoa berrikusiko dute, bidezkoa den moduan eta zenbatekoan, erreformak indarra hartzen duen urtean ondorioak izateko.

Laugarrena. Foru Komunitateak hitzarmen honen aplikaziorako beharrezkoak diren arauak –zerga berezianak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, aseguru primen gaineko zergarenak, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergarenak eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak– eta 41. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen dituen tasak ordainarazteko arauak eman bitartean, lurralde komunean indarra duten arauak aplikatuko dira.

Bosgarrena. Estatuak eta Foru Komunitateak erabaki ahalko dute batera finantzatzea Nafarroan edo beste lurralde batzuetan egin beharreko inbertsioak, horien izaera edo ezaugarriak direla eta finantzabide hori komenigarria denean.

Seigarrena. Bi administrazioek, elkar adosturik, urtero ezarriko dute, modulu batzuk aplikatuz, Nafarroak poliziaren arloan betetzen dituen esku-

menen kostuaren zenbatespena, betetzen direnak kontuan harturik.

Zazpigarrena. Toki entitateekiko Estatuak unean-unean betetzen dituen tutoretza finantzarioaren ahalmenak, Aurrekontu egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorren aplikazioari dagozkionak, Foru Komunitatearen esku egonen dira, baina horrek ez du inola ere ekarriko Nafarroako toki entitateen autonomia maila araubide komunekoek dutena baino txikiago izatea.

Zortzigarrena. 2002. urtetik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateari osasun laguntzaren eta gizarte zerbitzuen arloan eskualdaturiko eginkizun eta zerbitzuen finantziarioak Nafarroak bere gain hartutako gainerako zamek duten trataera berdina izanen du; modu horretan, abenduaren 28ko 1680/1990 eta 1681/1990 errege dekretuetan ezarritako aurrekontu araubidea ordezkaturiko da.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. 2000tik 2004ra bitarteko bost urtekoan, hitzarmen honen 57. artikuluek aipatzen duen egozte indizea 100eko 1,60koa da.

Bigarrena. Hitzarmen ekonomiko honen indaraldian zehar bost urtekoaren oinarri-urteztat hartu behar diren urteetako batean, oinarri-urte horri dagokion ekarpen likidoa behar den epean onesten ez bada, behin-behineko ekarpen likidoa ezarriko da ekitaldi horretarako eta, behar izanez gero, hurrengoetarako, hitzarmen ekonomiko honen 59. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat.

Horrela ezarritako behin-behineko ekarpen likidoei ez zaie behin betiko likidaziorik eginen, eta kasuan kasuko bost urtekoaren oinarri-urtearen behin betiko ekarpen likidoa ezarri ondoren erregularizatuko dira.

Hirugarrena. 2000tik 2004ra bitarteko bost urtekoan, Nafarroan balio erantsiaren gaineko zergan izaniko dirubilketa errealeari honakoak gehituko zaizkio:

a) Estatuak, balio erantsiaren gaineko zergan, aduanetan izaniko dirubilketa 100eko 1,699.

b) Lurralde komunean, balio erantsiaren gaineko zergan –aduanetakoa kenduta– izaniko dirubilketa errealean 100eko 0,314 zati 0,92638, edo Nafarroako dirubilketa errealean zati 0,01385, Nafarroako dirubilketa portzentajea Estatuko osoarekiko –Euskal Autonomia Erkidegoa kenduta– 100eko 1,473tik gorakoa –lehenengo kasuan– edo beheakoa –bigarren kasuan– den, horren arabera.

Laugarrena. 1. 2000-2004 bost urtekoan, Nafarroak alkohol eta alkoholdun edarien, tarteko produktuen, garagardoaren, hidrokarburoen eta tabako gaien fabrikazioaren gaineko zerga berezietan izaten duen dirubilketa errealarari honakoak gehituko zaizkio:

a) Estatuak, aduanetan, alkohol eta alkoholdun edarien eta tarteko produktuen gaineko zergetan izaniko dirubilketaren 100eko 1,60.

2. Zeinu negatiboarekin, lurralde komunean –aduanetakoa kenduta– alkohol eta alkoholdun edarien eta tarteko produktuen gaineko zergetan izaniko dirubilketa errealararen 100eko 4,30, zati 0,941, edo Nafarroako dirubilketa errealararena zati 0,059, Nafarroako dirubilketaren portzentajea Estatuko osoarekiko –aduanetakoa kenduta– 100eko 5,90etik gorakoa –lehenengo kasuan– edo beherakoa –bigarren kasuan– den, horren arabera.

b) Estatuak, aduanetan, garagardoaren gaineko zerga berezian izaniko dirubilketa errealararen 100eko 1,60.

2. Zeinu negatiboarekin, lurralde komunean –aduanetakoa kenduta– garagardoaren gaineko zerga berezian izaniko dirubilketa errealararen 100eko 0,50, zati 0,979, edo Nafarroako dirubilketa errealararena zati 0,021, Nafarroako dirubilketaren portzentajea Estatuko osoarekiko –aduanetakoa kenduta– 100eko 2,10etik gorakoa –lehenengo kasuan– edo beherakoa –bigarren kasuan– den, horren arabera.

c) Estatuak, aduanetan, hidrokarburoen gaineko zerga berezian izaniko dirubilketa errealararen 100eko 2,00.

2. Zeinu negatiboarekin, lurralde komunean –aduanetakoa kenduta– hidrokarburoen gaineko zerga berezian izaniko dirubilketa errealararen 100eko 0,71, zati 0,9729, edo Nafarroako dirubilketa errealararena zati 0,0271, Nafarroako dirubilketaren portzentajea Estatuko osoarekiko –aduanetakoa kenduta– 100eko 2,71tik gorakoa –lehenengo kasuan– edo beherakoa –bigarren kasuan– den, horren arabera.

d) Zerga honen aplikazio lurraldean tabako eta tinbre saltokiei emaniko gaien balioan Nafarroan dauden mota horretako establezimenduei emandako gaien balioak egiten duen portzentajea, urtekoa, lurralde komunean tabako gaien gaineko zergan izaniko dirubilketa errealarari aplikatuta ateratzen den emaitzaren eta lehen definituriko portzentajeari ehunera bitarteko osagarria Nafarroan tributu kontzeptu horretan izaniko dirubilketa

errealarari aplikaturik ateratzen den emaitzaren arteko aldea.

Labore gaien fabrikazio eta merkataritzaren egungo araubidea aldatuz gero, bi administrazioek, elkar adosturik, doitze hori berrikusi beharko dute.

2. Nafarroan, hidrokarburoen gaineko zergan izaniko dirubilketa errealararen eta, aurreko a) 2, b) 2, eta c) 2 letren azken puntuan jasotako indizeak Estatuak horietako bakoitzean izaniko dirubilketa errealarari aplikaturik ateratzen den kopuruaren arteko aldea 100eko 7tik gorakoa bada, alkoholararen eta alkoholdun edarien, tarteko produktuen eta garagardoaren gaineko zerga berezien kasuan, 100eko 10etik gorakoa, indize horiek zuzendu egingen dira, aipatutako aldeak gertatzen diren urtean doitzeak egiteko.

Zuzenketa hori egiteko, aldaketa-portzentaje positibo edo negatiboa aplikatuko da, aurreko a)2, b)2 eta c)2 letretako azken puntuan jasotako indizeei aurreko lerrokadan ezarritako mugetatik gainekoa, alegia.

Bosgarrena. I. tituluko II. kapituluko 3. sekzioan eta III. kapituluko 1. sekzioan jasorik dauden arauak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietan izanen dira aplikatzekoak.

Seigarrena. Hitzarmen ekonomiko honek indarra hartu aurretik sortutako tributuak haien sortzapean unean indarra zuten lotunek zuzenduko dituzte.

Arau hori bera aplikatuko da atxikipen, konturako dirusarrera eta ordainketa zatituetan, baldin eta atxikipena, konturako dirusarrera edo ordainketa zatitua egiteko betebeharrak hitzarmen ekonomiko honek indarra hartu aurretik sortua bada.

Hitzarmen ekonomiko honek indarra hartzean amaiturik ez dauden prozedurak hasierako unean indarra zuen araudiak zuzenduko ditu.

Zazpigarrena. Tributu hitzartu berrien araubide iragankorra arau hauei lotuko zaie:

1.a. Foru Komunitatea subrogatuko da Estatu-ko ogasun publikoak tributuen arloan dituen eskubide eta betebeharrak, xedapen honek aipatzen dituen tributuen kudeaketa, ikuskapena, berrikuspene eta dirubilketari dagokionez.

2.a. Xedapen honek aipatzen dituen tributuak hitzartutaz hartzen diren data baino lehen likidatu eta betetako kopuruak, tributu horiek hitzarturik egonez gero Foru Komunitateari loturik egonen ziren egoerei dagozkienak, eta data horren ondortik ordaintzen direnak, Foru Komunitatearenak izanen dira, osorik.

3.a. Xedapen honek aipatzen dituen tributuen hitzartutzat hartzen diren data baino lehen sorturiko kopuruak, ikuskapenak direla-eta data horretatik aurrera likidatutakoak, tributu hauen irizpideak eta lotuneak aplikatuz banatuko dira.

4.a. Bidezkoa denean, xedapen honek aipatzen dituen tributuen hitzartutzat hartzen diren data baino lehen eginiko edo egin beharreko likidazioen itzulketak sortzapenaren unean eskumena zuen administrazioak egin beharko ditu, tributu hauen irizpide eta lotunekin bat.

5.a. Nafarroako Foru Komunitateak emaniko administrazio egintzen kontrako erreklamazioa Foru Komunitateko bide administratiboan egingen da, horren organoetan. Aitzitik, estatukoa administrazioak emanikoen kontrako erreklamazioa Estatuko organo eskudunetan egingen da.

Nolanahi ere, aurreko arauetan jasotako arauen arabera hartzekodun den administrazioari esleituko zaio ordainketa.

6.a. Tributuen arloko arau-hausteen kalifikazioaren ondorioetarako, bai eta kasu bakoitzean bidezkoak diren zehapenena egiteko ere, erabateko balioa eta eraginkortasuna izanen dute xedapen honek aipatzen dituen tributuen harmoniza-

zioak indarra hartu aurretik Estatuko Ogasun Publikoan gaiari buruz zeuden aurrekariak.

7.a. xedapen iragankor honek aipatzen duen tributu harmonizazioak indarra hartzeak ez ditu kaltetuko zergadunek data hori baino lehen emaniko legeak medio bereganaturiko eskubideak.

Zortzigarrena. Hitzarmen ekonomiko honek indarra hartu aurretik eraturiko interes ekonomiko batasunei eta enpresen aldi baterako elkartzeari aplikatu beharreko tributu araubidea Foru Komunitatekoa izanen da horren lurralde esparrua gaitzen ez dutenean eta zergen arloko foru legeriari loturik daudenean.

Azken xedapena

Hitzarmen ekonomiko honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Xedapen indargabetzailea

Azken xedapenean ezarritakoaren arabera, Hitzarmen Ekonomiko honetan jasotako arauak ondorioak izaten hasten diren unean indargabeturik geratuko da horien kontrako den xedapen oro.

I. ERANSKINA. NAFARROAREN 2000. URTEko –OINARRI-URTEA– EKARPENAREN ZEHAZTAPENA

KONTZEPTUA		(pezetak, milakotan)
Estatuko aurrekontuak. Gastuak		23.176.259.727
Nafarroak betetako zamak		
– Ministerioak eta lurralde enteak (*)	12.424.709.039	
Nafarroak bere gain hartu ez dituen zamak, guztira		10.751.550.688
Ekarpena, osotara		
10.751.550.688 * 0,0160		172.024.811
Konpentsazioak:		
– Hitzarturik gabeko tributuena		
508.497.000 * 0,0160	-8.135.952	
– Tributuen bidezkoak ez diren beste dirusarrera batzuen		
1.378.331.602 * 0,0160	-22.053.306	
– Aurrekontuko defizitarena		
4.320.137.727 * 0,0160	-69.122.204	
–Hitzarturiko zuzeneko zergena	-12.657.747	
		-111.969.209
OINARRI-URTEKO EKARPEN LIKIDOA		60.055.602
OINARRI-URTEKO EKARPEN LIKIDOA, (EUROAK, MILAKOTAN)		360.941,44

(*) Zenbateko honetan sarturik daude 4.225.788.438 mila pezeta, Insaludeko eskualdaketarenak; 475.474.625 mila pezeta, Inersoren eskualdaketarenak; eta 250.000.000 mila pezeta, poliziaren arloko balorazioarenak.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	